



2022ko otsaila

EUSKARA LEGUTIOKO MOLDERA

Hiztunen arteko harremanak saretzen
eta aktibatzen

Jone Miren Hernandez,
Josu Ozaita eta
Olatz Altuna



AURKIBIDEA

1. Sarrera: ikerketaren abiapuntua	4
2. Lantaldea.....	7
3. Ikerketaren helburuak	7
4. Ikerketaren prozedura eta metodologia.	7
4.1. Lehenengo fasea: herria ezagutzen	8
4.2. Bigarren fasea: herriko hiztunak ezagutzen	8
4.3. Hirugarren fasea: hiztunen arteko harremanak saretzen eta aktibatzen ...	9
4.4. Laugarren fasea: bukaerako emaitza eta aurkezpena.....	11
5. Legutioren argazki orokorra.	11
5.1. Herri izaera.	11
5.2. Euskarari loturiko ezaugarriak.....	14
5.3. Euskarari loturiko sarearen ahulezia	16
6. Legutioko gazteak, (hizkuntz) ideologiak, praktikak eta bizipenak.....	17
6.1. Gazteak: Hizkuntz ideologiak	17
6.1.1. Euskararen ideologiaren “fossilizazioa”	18
6.1.2. Kontraesanak edo kargak	18
6.2. Gazteak: Hizkuntz praktikak	20
6.2.1. Kode ezkutuen irakurketa.....	20
6.2.2. Errekurtsoen falta	21
6.2.3. Erresistentziak eta eraginak.....	21
6.3. Gazteak: Hizkuntz bizipenak	21
7. Legutioko guraso gazteak: (hizkuntz) ideologiak, praktikak eta bizipenak.	23
7.1. Gurasoak: Hizkuntz ideologiak	23
7.1.1. Euskararen gaiak, oro har, ez du kezka handirik eragiten	23
7.1.2. Euskara eskolari lotutako afera	23
7.2. Gurasoak: Hizkuntz praktikak	24
7.2.1. Guraso izatean euskararekiko kontzientzia handiagoa	24
7.2.2. Gurasoak seme-alabekin euskaraz, beraien artean gaztelaniaz	25
7.2.3. Solaskidearen arabera hizkuntza bat edo beste	25
7.2.4. Gurasoak nerabe zirenean baino gehiago hitz egiten da euskaraz.....	25
7.2.5. Ezagutza bai, erabilera ez: pandemiarekin atzera	26
7.3. Gurasoak: Hizkuntz bizipenak	26
7.3.1. Guraso euskaltzaleen inpotentzia seme-alaben lagunek erdararako joera dutelako	26

7.3.2. Eskola ez da nahikoa, guraso gisako erantzukizuna	26
7.3.3. Seme-alabei ahaztu egiten zaie beraien lagunek euskaraz badakitela	27
8. Azken gogoetak	28
8.1. Euskararen lurra, euskararentzako lurra.....	28
8.2. Gazteak saretuta, euskararen harrobia ote?.....	28
8.3. Guraso taldea, erabakiak hartzeko gunea/unea.....	29
8.4. Legutiok giltzarriak izan daitezkeen hiztunak baditu.....	30
9. Etorkizunari begirako proposamenak	31
9.1. Gazteei protagonismoa eman.....	31
9.2. Gurasoei eta familiei gunek eskaini	31
9.3. Herria euskararen inguruan batuko duen ekimenak sustatu	32
9.4. Euskal hiztunen praktikak eredu: Egin klik!.....	32
9.5. Euskararekin lotutako ideia eta irudi berriak	32
10. BIBLIOGRAFIA.....	34
11. Eranskinak	36

1. SARRERA: IKERKETAREN ABIAPUNTUA

"*Euskara Legutioko moldera*" izenburua duen ikerketaren abiapuntuan dagoen kezka ez da lokala edo isolatua, baizik eta orokortua, Euskal Herriko herri askok partekatzen dutena: euskararen erabilera.

Legution arreta ipini aurretik, erabilerarekiko ardurak beste ikerketa bat ekarri zion lantalde honi. "*Gazteak euskararen eszenatokian: erabileraren auzia. Euskararen erabilerarekin lotura duten faktore kualitatiboak*" izeneko ikerketa¹ Euskal Autonomia Erkidegoko lau herritan egin zen: Amorebieta-Etxano, Gernika, Pasai Donibane eta Zumaian. 2019-2020 bitartean burututako ikerketa COVID-19 pandemia zabaldu baino lehen gurean egindako azkenengoetakoa izan zen.

Azterlan hau aipatu dugu, izan ere, Legutioko Udalarentzat erreferentea izan baitzen Soziolinguistika Klusterrari udalerrri horretan proiektu bat diseinatzeko eskatu zionean. Eta hortik abiatu ginen, hain zuzen ere, hemen aurkezten den lanaren helburuak eta metodologia zehazteko garaian. Zentzu horretan Legution egindako ikerketa bada segida baten parte, ibilbide luzeago baten geldiunea. Eta badu toki bat euskal soziolinguistikari garatzen ari den genealogian: alegia, euskal gazte hiztunekin lotutako ikerketen segidan. Beste nonbait aipatu dugun moduan (Hernández, Altuna 2021), ikerlerro honen lehenengo urratsak gutxienez orain dela hogeita hamar urte hasi ziren. Euskarazko irakaskuntza egonkortzeko bidean jarri, euskararen legea ezarri (1982) eta handik urte batzuetara baziren martxan gazteak eta euskarari buruzko lehenengo ikerlanak. *BAT Soziolinguistika Aldizkariak* orain arte argitaratutako zenbakiei begiraturaz gero, konturatuko gara gutxienez hiru hamarkadan jardun dugula gazte euskaldunei buruz hausnartzen². Gogoeta hauen erdigunean galdera bat da gehien errepikatzen dena: euskararen ezagutza haur eta gazteen kasuan aurrera badoa, zergatik erabilera ez da modu berean handitzen? Edo beste hitzetan, zergatik gazteek ez dute euskaraz espero bezain beste egiten? Galdera honek gordetzen duen ikuspegiak aritu aurretik, "erabileraren" nozioaz bi hitz esan nahi ditugu.

Euskarari dagokionez, hamarkada luzeetan zehar hizkuntza berreskurapenaren erdigunean hezkuntza sistema eta eskola egon dira, eta horren ondorioak azaleratzen ari dira gaur egun. Horren erakusle dira ezagupenari dagozkion datu baikorrak, baina baita erabileraren inguruko hutsuneak ere. VI. Inkesta Soziolinguistikoaren arabera (Eusko Jaurilaritza, Nafarroako Gobernua & Euskararen Erakunde, 2016), 2016an EAEko 16-24 bitarteko gazteen % 71,4k euskara bereganatua zuen. Horietatik %29,5ek dio euskara beste hizkuntzen gainetik erabiltzen duela. Bestalde, eremu

¹ Ikerketaren harira sortutako txosten osoa Soziolinguistika Klusterreko web gunean eskuragarri dago: <https://soziolinguistika.eus/eu/argitalpenak/gazteak-euskararen-eszenatokian-erabileraren-auzia/>.

² Jada aldizkari horretako 7-8 zenbakian (1992ko irailean argitaratua) honelako izenburua duen artikulua topatu dugu: «Gazteak euskalduntzeko egitasmoa». Artikulu horretako egileek honelako kezka adierazi zuten (Euskal Kulturaren Batzarra, 1992): «Azterketa soziolinguistikoek diotenez gazteak dira, oro har, euskararen ezagutza mailaren eta erabilpenaren arteko desfaserik handiena agertzen dutenak, euskararekiko motibaziorik altuena adieraztearekin batera. Hitz bitan: hizkuntza-leialtasun tasa ez dator bat ageriko kontzientzia mailarekin». Hurrengo helbide honetan eskuragarri dago: <http://www.soziolinguistika.org/node/597>. Urtebete beranduago (1993), gazteak protagonista izan ziren «Euskara, atzo eta gaur» izeneko ikerketan. Eusko Jaurilaritzak bultzatu zuen ikerketa mardul eta sakon hori, eta gazteen hizkuntza-argazki ezin osatuagoa eskaini zuen.

publikoan egiten den Kale Neurketak (Soziolinguistika Klusterra, 2017)³ utzitako datuak ere adierazgarriak dira. 2006. urtera arte kaleko erabilera igotzen joan zen, baina geroztik behera egin du, halako gisaz non euskaraz buruturiko elkarrizketak %13,7 izatetik (2006) % 12,6 izatera (2016) igaro diren (Soziolinguistika Klusterra, 2017). Ikerketa beraren arabera, Euskal Herriko gazteen (15-24 urte bitartean) euskararen kaleko erabileraren batez bestekoa % 12,3 da.

Aipatutakoak aipatuta, ezin da ahaztu euskararen erabilera nabarmen zabaldu dela azken urteotan gazteen esparru ezberdinetan, bai formalak edo akademikoak izan daitezkeen eremuetan (2020-2021 ikasturtean Euskal Herriko Unibertsitatean ikasle berrien %53,9 euskarazko taldeetan matrikulatu da), baita informaletan edo aisialdiarekin lotutakoetan ere. Adibidez, euskarazko literatura eta musikaren kontsumoa (Kulturaren Euskal Behatokia, 2012) nabarmen handitu da azken hamarkadan, nahiz eta gauza bera ez gertatu puri-purian dauden beste eremu batzuekin, esate baterako, ikus-entzunezkoekin eta bideo-jokoekin (Muñagorri, 2020). Datu hauek aipatzen ditugu "erabilera" hizpidera ekartzen dugunean modu orokorrean mintzatzeko joera dugulako, ñabardurarik edota zehaztapenik egin gabe; izan ere, gazteei buruz ari garela, zein erabileraz ari gara zehazki?. Hala ere, eta lerro hauen hasieran aipatu den moduan, bi datu nabarmendu behar dira. Batetik, eta salbuespenak salbuespen, egia dena da haur eta gazteen ezagupena eta erabileraren artean arrakala nabarmena dagoela. Bestetik, sumatutako eta irudikatutako arrakala horrek hainbat kezka eta galdera eragin ditu, euskara bidegurutze batean dagoela irudikatzeraino.

Puntu honetan komeni da gogoratzea euskararen kasuan gertatzen den ezagutzatik erabilerarako jauzia ez dela zerbait isolatua. Antzeko egoerak aurkitu daitezke Europan zehar hizkuntza gutxituak dauden beste testuinguru batzuetan ere: Irlandan, Galesen, Galizian edota Katalunian, esaterako. Hizkuntzaren ikuspuntutik antzekoak diren egoeretan, jokaera berdintsuak sumatzen dira haur eta gazteen artean. Zer dela eta?

Itaun honen erantzuna oso konplexua dela pentsatzen dugu. Are gehiago, erabileraren auzi honetan erantzun bat eta bakarra ez dagoela onartzeko prest egon beharko ginateke. Ziur aski, erantzunaren "puskak" biltzetik hasi beharko genuke, jakinda hau ere behin-behineko ariketa dela. Esate baterako, erantzuna osatzeko tokiko faktoreak zein faktore orokorragoak ("globalak" edo) hartu beharko genituzke kontuan, hiztunak, euskal hiztunak barne, mundu mailako joeretan eta gertuko errealitateetan murgilduta baitaude.

Baina, era berean, uste dugu beste elementu bat ere jarri behar dela mahai gainean. Azken urteotan, hizkuntza gutxituak dauden tokietan (Europako mendebaldean bederen) antzeko berreskurapen prozesuak, politikak eta plangintzak abiatu direnez, ez al gara orain bizitzen ari estrategia horien guztien ondorioak? Ideia honen ildotik,

³ Aipatu behar da Hizkuntzen Erabileraren Euskal Herriko Kale Neurketa bost urterik behin egiten den ikerketa dela. Hitztunen kale erabilera du aztergai, hau da, Euskal Herriko kaleetan entzuten den hizkuntza erabilera behatzen du ikerketak. Datu bilketa behaketa bidez egiten da, neurtzaileek kalean dabiltzan hitzunei ezertxo ere galdetu gabe eta entzuten dutena jasoz alegia. Modu honetan, hiztunak ez du jakiten behatua izaten ari denik, eta neurtzaileek hitzunen berezko joera jasotzen dute. Hain zuzen, metodologia horixe da ikerketa honen berezitasuna. Estreinakoz 1989an egin zen neurketa hori eta geroztik, lau-bost urtean behin errepikatu da: 1993an, 1997an, 2001ean, 2006an, 2011n eta azkena 2016an. 2016ko VII. neurketan, Euskal Herri osoko 144 udalerrri neurtu ziren, eta 187.635 elkarrizketaren nahiz 515.260 solaskideren informazioa bildu zen.

bat egiten dugu Eileen Goughlanekin (2021), hizkuntza berreskurapenerako martxan jarritako plangintzek hitzun gazteengan izandako eragina eta ondorioak aztertzeo deia egiten duenean. Gure ustez, hau beste ikerlerro garrantzitsua da, besteak beste, hizkuntza-ideologiaren eremura eramaten gaituena.

Argazki eta diagnostiko osatu bat egiteko orduan, Goughlan-en (2021) hizkuntz berreskurapenerako politiken oharra euskararen testuingurura ekartzeaz batera, hitzun berriei buruzko ikerketek (Amorrortu, Ortega & Goirigolzarri, 2017; Artetxe, 2018, 2020; Goirigolzarri, Amorrortu & Ortega, 2019; Lantto, 2015, 2019; Ortega et al. 2013, 2015, 2016; Urla et al., 2017) nabarmendutako tentsioak ere kontuan hartu behar direla iruditzen zaigu. Tentsio horiek, berriz ere, maila ideologikoan antzematzen dira. Hari zein korapilo ezberdinak agertzen ari dira, batez ere gazteekin eta bereziki hitzun berriein egindako ikerlanetan. Urruti gaude fenomeno horiek ondo ulertzetik, eta pentsatzen dugu hizkuntzarekin lotutako eremu ezberdinetan (ezagutzan, sentzibilizazioan, etab.) lanean jarraitu beharra dagoela, orain arte ikasitakoa ezbaian jartzen, eguneratzen eta aberasten. Ahalegin honetan, gaur egun, hizkuntza-ideologiaren afera gako garrantzitsu bat dela iruditzen zaigu. Hiztunek hizkuntzarekin garatzen duten harremana edota lotura, dituzten bizipenak, usteak, irudikapenak... funtsezkoak direla uste dugu. Ideologiaren azterketak gako interesgarriak emango dizkigu hitzunik (kasu honetan, gazteek bereziki) euskararen eremuan duten kokapena ezagutzeko eta euren jokabideak hobeto ulertzeko.

Zentzu honetan, bat egiten dugu Ruben Moralejok eta Fernando Ramallok diotenarekin: hizkuntza-ideologia funtsezko elementu bat da ezagupenetik erabilerarako jauzia emateko (Moralejo eta Ramallo, 2019:189). Afera honek duen pisuaz jabetzeko Ane Ortega eta taldekideek egindako hainbat ikerlan hartu ditzakegu kontuan, besteak beste, legitimazioaren auzia mahaigaineratzen dutelako. Gaur egun, Ortega eta taldekideen esanetan (2016), «benetako hitzuna» zer eta zein den argitzea dago eztabaidan.

(Euskararen) erabileraren inguruko kezkatik abiatu gara. Kezka hori haur, nerabe eta gazteen kolektiboari zuzendutakoa da nagusiki, hau da, adin-tarte horiek berengantzen dute arreta. Ardura hau, hizkuntzaren erabilerara ez ezik, ezagupenera eta motibazio arlora ere iritsi da. Ikerketa honek arlo horiek denak jorratu ditu, beti ere Legutioko gazte hitzunik ikerketaren objektu/subjektu izanik.

Hori horrela, txosten honetan Legutioko gazteen zein guraso gazteen euskara ezagupena, hizkuntz praktikak eta hizkuntz ideologiak aztertu ditugu, eta egindako lanaren berri emateko, 9 atal nagusitan antolatu dugu txostena. Ikerketaren abiapuntua eta motibazioa azaldu ondoren, 2. atalean lantaldea aurkezten da. 3. atalak helburuen berri ematen du, eta 4.ak erabilitako metodologiaren zein prozesuaren inguruko xehetasunak jasotzen ditu. 5. atalean, emaitzak hobeto uler daitezzen, eta kokapen orokor gisa, herriari buruzko hainbat aspektu nabarmentzen ditugu. Ondoren, 6. eta 7. ataletan bete-betean heltzen diegu emaitzei, Legutioko (hiztun) gazteei eta (hiztun) guraso gazteei erreparatuta, hurrenez hurren. Bi kolektibo horien alderdirik esanguratsuenak jaso ondoren, 8. atalean, azken gogoetekin eta ondorio nabarmenekin borobiltzen dugu analisia, eta 9. atalean, aurrera begirako proposamenak jasotzen dira. Amaitzeko, erabilitako bibliografiarekin eta eranskinen atalarekin ixten dugu txostena.

2. LANTALDEA

Ikerketaren prozesu osoan, diseinutik hasi eta txostenaren idazketa eta aurkezpena arte, hiru pertsona aritu gara lanean. Hona hemen bakoitzaren egitekoak:

Ikerketaren koordinatzailea eta ikerlaria: Olatz Altuna Zumeta (Soziolinguistika Klusterreko ikerlaria).

Ikerlaria: Josu Ozaita Azpiroz (Antropologo ikerlaria).

Ikerketaren Zuzendaria: Jone Miren Hernandez Garcia (EHUko Gizarte Antropologiako ikerlaria eta irakaslea).

3. IKERKETAREN HELBURUAK

Legution egindako ikerketak hiru helburu nagusi izan ditu:

1. Legutioko gazteen eta guraso berrien hizkuntz praktikak, ideologiak (ideiak, iritziak, errepresentazioak eta abar) eta bizipenak aztertzea euren errealitatean eta egunerokotasunean kokatuta, hau da, Legutiok eskaintzen duen tesuinguruan.
2. Ikertze- eta ezagutze-prozesuaren bidez, Legution izan diren eta egun diren hizkuntza-sareak identifikatzea, eta sare berriak sortzen laguntzea. Era honetan ikerketari izaera partizipatiboa ere eman nahi izan zaio.
3. Etorkizunari begirako eskuhartzea(k) diseinatzeko gidalerro edota gako praktikoko batzuk eskuratzea eta zerrendatzea.

4. IKERKETAREN PROZEDURA ETA METODOLOGIA.

Finkatutako helburuak kontuan harturik, eta Legutioko ezaugarriari erreparatuta, ikerketa aurrera eramateko ibilbidea eta prozedura diseinatu zen. Bertan lau fase ezberdin aurreikusi ziren. Fase guztietan metodo eta teknika kualitatiboak erabili ziren, ikerketaren helburuak aurrera eramateko egokienak zirelakoan. Izan ere, hitzunen subjektibitatean (iritziak, usteak, irudikapenak, bizipenak, eta abar) arreta jartzea lehenetsi zen.

Fase bakoitzaren aurkezpena egingo da ondoren, ikerketa-urrats bakoitzean egindakoa azalduz.

4.1. LEHENENGO FASEA: HERRIA EZAGUTZEN

Lehenengo urrats honen helburu nagusia herriko errealitatera, dinamiketara eta biztanleengana hurbiltzea zen. Horretarako ondorengo teknikak erabili ziren:

- **Behaketak:** ikerlariek herria bisitatu zuten tokia eta bertako egunerokotasuna ezagutzeko xedez. Bi eratako behaketak egin ziren: ikerlariek bakarka egindakoa, eta herritar batek gidatutakoa. Behaketa guztien emaitzak jaso egin ziren eguneroko batean bildutako informazioa aurrerago aztertu ahal izateko. Ibilbide gidatua egin zigun pertsonaren profila hau da:

B01: Legutioko herritarra. Gurasoa. Euskalduna. Emakumea.

- **Elkarrizketak:** ikerketaren fase honetan bi adin-tarte ezberdinekin egin genuen lan. Batetik, 24-31 urte inguruko gazteekin; bestetik 32-40 urte inguruko guraso (gazte) berriekin. Adin-taldeak ez dira modu zorrotzean hartu, irizpide orokor gisa baizik. Dena dela, gazteekin beraiekin baino, gazte horiekin harremana duen pertsona erreferentzialekin egin ziren lehenengo elkarrizketak. Adin-talde bakoitzean elkarrizketa bana egin zen. Hauek dira elkarrizketatutako pertsonen profila:

LG01: Legutiko herritarra. Gaztea. Euskalduna. Gizonezkoa.

LGG01: Legutioko herritarra. Gurasoa. Euskalduna. Emakumezkoa.

Fase hau 2021eko martxoan eta apirilean zehar garatu zen.

4.2. BIGARREN FASEA: HERRIKO HIZTUNAK EZAGUTZEN

Bigarren urratsaren helburua herriko hiztunak eta eurek hizkuntzarekin duten harremana (ideiak, praktikak eta bizipenak) ezagutzea izan zen.

Denera bederatzi pertsonak hartu zuten parte fase honetan. Batetik, hiru laguneko bi **talde-elkarrizketa** osatu ziren: batean hiru guraso gazte euskaldun elkartu ziren; bestean profil erdaldunagoa (euskaldun pasibo gisa kontsideratu daitezkeenak) zuten hiru guraso gazte bildu ziren. Bestalde, hiru gazte elkarrizketatu ziren, kasu honetan banaka.

Hauek dira bi talde-elkarrizketa horien ezaugarriak⁴:

LGG02: Legutioko herritarrak (3 pertsona). Guraso euskaldun pasiboak.

LGG03: Legutioko herritarrak (3 pertsona). Guraso euskaldunak.

⁴ Elkarrizketatutako pertsonen anonimotasuna bermatzeko asmoz, izen-abizenen ordean kode batez izendatu dira. "LG" laburdurak "Legutioko gaztea"ri egiten dio erreferentzia eta "LGG" laburdurak "Legutioko guraso gaztea"ri. Jarraian agertzen den zenbakiak elkarrizketa egin zen ordenarekin du zerikusia.

Eta hauek dira elkarrizketatutako hiru gazteen profilak:

LG02: Legutioko herritarra. Gaztea. Euskalduna. Gizonezkoa.

LG03: Legutioko herritarra. Gaztea. Euskalduna. Emakumezkoa.

LG04: Legutioko langilea. Gaztea. Euskalduna. Emakumezkoa.

Elkarrizketa hauetan herriko hizkuntza-praktiketan sakondu zen, baita hiztunon (hizkuntz) ideologia zein bizipenetan ere. Gazteekin eta guraso taldeekin, besteak beste, horrelako gai orokorrak landu ziren⁵:

- Euskara herrian: non, norekin, zertan, nola... erabiltzen da euskara?, hau da, euskararen presentzia eta ausentziaren mapa(k).
- Euskarari buruzko ideiak, usteak, iritziak, argudioak... Hizkuntza-politikari buruzko ezagutza, euskaingintza, *Euskaraldia*...
- Euskararekin lotutako bizipenak eta esperientziak: norbanakoak zein kolektiboak (herriarekin lotutakoak).

Fase hau 2021eko maiatza eta ekaina bitartean garatu zen.

Ondoren, 2021eko uztailan, lehenengo bi fase hauetan jasotako informazioa antolatu eta aztertu zen, eta hirugarren fasearen prestaketari ekin zitzaion.

4.3. HIRUGARREN FASEA: HIZTUNEN ARTEKO HARREMANAK SARETZEN ETA AKTIBATZEN

Hirugarren fasearen helburua herriko hiztunak elkarlanean jartzea eta euskara sendotzeko proposamenak zein aurreikuspenak irudikatzea izan zen. Hala, hiztunek euskararekin zer-nolako harremana nahi zuten ezagutu nahi zen. Horretarako bi dinamika aurreikusi genituen.

Gazta-tertulia: dinamika honetan herritarren parte-hartzea bilatu nahi genuen. Tertulia formatua erabiliz bi helburu landu nahi ziren: batetik, ordurarte ikerketak jasotako informazioaren berri eman eta behin-behineko ondorioen gaineko gogoeta egitea; bestetik, herriko hizkuntza-dinamika hauspotzeko ideiak eta proposamenak biltzea. Horiez gain, bigarren mailako helburu bat ere bazen: urte amaieran antolatu nahi zen buztin lantegiaren diseinurako ekarpenak jasotzea.

⁵ Erabilitako gidoiak eranskinen atalean topa daitezke.

Gazta tertulia prestatu eta deialdi zabala egin genuen, gonbidapenak eginez bide ezberdinetatik (ikus tertuliarako deialdiaren materiala eranskinen atalean). Zoritxarrez bertan behera geratu zen tertulia, dinamika aurrera eramateko behar besteko herritar kopurua ez genuelako lortu. Esan behar da COVID-19ak eragin oso kaltegarria izan zuela garai hartan eta erabat baldintzatu zuela ekimen hau.

Buztin-lantegia. Ikerketa proiektua diseinatzen hasi ginenetik izan genuen buruan "Ollerias-Museo de Alfareria Vasca" egitasmoarekin lankidetzat bat proposatzea. Proiektu hori Legutiori lotutakoa da erabat, herrian bertan kokatuta dago eta bertako historia zein ingurune sozial eta naturalari atxikia da. Ikerketaren izenburua bera, "Euskara, Legutioko moldera", museo honen berezitasunari zor zaio.

Proposamenaren berri eman genion museoa zuzentzen duen Blanka Gómez de Segurari, eta hastapenetik jarrera ezin irekiagoa adierazi zuen. Bere laguntza eta inplikazioa ezinbestekoak izan ziren herritarrekin egin dugun buztin-lantegia aurrera eramateko. Jarrera berdina erakutsi dute berarekin batera aritutako langileek eta laguntzaileek.

Lantegiaren diseinua Blanka Gómez de Seguraren esku utzi genuen, eta hala, bere gidaritzapean burutu zen ekimena, abenduaren 12an. Lantegiaren helburuak hauek izan ziren: (1) Ikerketaren berri eman eta ordurarte jasotako behin-behineko ondorioak partekatzea, (2) Legutioko eta euskarazko egitasmo baten inguruan herritarrak biltzea, (3) modu ludiko, artistiko eta gozagarri batean euskararekin zerikusia duten bizipenak sustatzea eta partekatzea, (4) herritarren elkar ezagutza bultzatzea eta sendotzea, eta horrela beraien arteko sareak sortzea giro atsegina batean.

Buztin-lantegia 2021eko abenduaren 12an egin zen eta honako egitaraua izan zuen:

10:00-11:00 Parte-hartzaileei harrera eta museoari bisita gidatua.

11:00-12:00 Elosuko herriko egoitzara joan eta hamaiketakoa egin.

12:00-13:00 Buztin-lantegia. Parte-hartzaile bakoitzak teila bat edo batzuk egiteko aukera izan zuen. Bertan euskarari buruzko mezuak irudikatu ziren bai hitzez (idatziz) zein irudiz (marrazkien bidez).

13:00-13:30 Teilak partekatzea eta egindako lanen erakustaldia. Buztinezko teilekin aurrerantzean zer egin daitekeen proposatzeko tarte irekia eta amaiera.

Lantegian parte hartzeko 35 lagunek eman zuten izena, baina COVID-19ak azken orduko hutsegiteak eragin zituen. Denera 16 bat herritar bertaratu ziren eta giro ezin hobean aritu ginen. Benetan goiz borobila igaro genuen. Ekimen honen argazkiak eranskinen atalean ikus daitezke.

Hirugarren fase hau 2021eko urria eta abendua bitartean garatu zen.

4.4. LAUGARREN FASEA: BUKAERAKO EMAITZA ETA AURKEZ- PENA

Fase honetan prozesu osoan jasotako materialak antolatu, aztertu eta landu ditugu. Ondorio guztiekin honako txosten hau osatu dugu.

Amaitzeko, ikerketaren emaitzak herritarrei aurkeztuko zaizkie. Gaur gaurkoz aurkezpenaren formatua itxi gabe dago. Halere, ikerketaren ondorioak ezagutaraziko zaizkie herritarrei, eta, bide batez, buztin-lantegian egindako teilak erakutsiko dira, beren kokapena erabakitzeko.

Laugarren fase hau 2022ko martxoan amaituko dugu.

5. LEGUTIOREN ARGAZKI OROKORRA.

Atal honetan herriaren deskribapen orokorra egingo dugu, gero datozen emaitzak testuinguru egokian kokatzeko.

5.1. HERRI IZAERA.

Legutio herria bada ere, auzune desberdin eta bereiztuak ditu, askotan bitzta propioa dutenak. Ondorengo taulan jaso dugu auzune bakoitzean zenbat biztanle bizi den eta zein izan den azken hogeituroteotako bilakaera demografikoa.

1. taula: Biztanleriaren bilakaera auzuneen arabera, 2000-2019

	2000	2005	2010	2015	2019
Elosu	105	101	120	97	88
Goian	21	17	21	22	20
Urbina	156	144	120	132	135
Urrunaga	84	106	111	100	109
Legutio	1011	1131	1272	1365	1533

Iturria: Wikipedia

Legutioko alde zaharraz gain, gorantz dagoen Saindurdi auzoak garrantzi handia du. Baserri auzunea da, balio sinboliko handikoa, Legutioko “betiko” familiak bizi direlako bertan. Zonalde hau euskararekin lotzen da, eta euskara erabiltzeko joera horri eutsi egin zaio. Diotenez, bertan Legutioko euskalkia hitz egiten dute oraindik hainbat adin-ekok; harrotasunez diote hori, gainera.

1. Irudia: Legutioko irudia airez egindako argazkian



Iturria: Google maps

Gasteiztik 20 minutura dagoen herri txikia da Legutio, herri txiki batek dituen ezau-garri berezituekin: “denok ezagutzen dugu elkar”, diote bertakoek. Eta hala da, adin desberdinetako jendeak elkar ezagutzen du. Herriko aisialdian garrantzi handia du taberna giro edo poteoak, eta asteburuetan ez da harritzekoa adin desberdinetakoak elkartzen dituen espazioak sortzea. Kaleko giroa dago honenbestez, batez ere asteburuetan. Hiriburua gertu badu ere, bizitza handiko herria da. Hale diote behintzat bertakoek. Herri txikiko giro horrek jendea erakarri du bertan bizitzera, aukera baitago herri bateko bizimodua egiteko, nahiz eta hirian lan egin.

Herri-bizitza hori suspertu egiten da uda partean, eguraldi goxoa dagoenean. Ingu-ruko urtegia freskatzeko espazio bilakatzen da, eta herriko tabernetako terrazak oso atseginak dira iluntzeetan. Neguan, aldiz, oso bestelakoa da errealitatea: hotzak giroa hoztu eta jendea etxekotu egiten du hilabete batzuetarako, nahiz eta asteburuetan kale giro pittin bat sortzen den. Baina legutiarrak oso Legutiokoak dira, orokorren:

(LG01): Oso Legutio, oso oso Legutio. Hori da daukagun arazo bat e kanpoko jendearekin erlazionatzea igual kostatzen zaigu nahikotxo. Zaila da gu herritik ateratzea, gu herrian oso gustora gaude eta irtetzen bagara juergan juteko edo holako gauzetarako gero ondo. Zaila da herritik ateratzea jendea (barreak) nahiko herrikoiak gara bai.

Giro ona dute, baita gazteen artean ere. Gainera, ez dira adinka banatzen, eta hainbat belaunaldi elkartzen dira katebegien tankeran. Horrela zioen elkarrizketatutako

gazte batek (LG01): “ba igual ikusten da 35 urteko tipo bat 18 urteko tipo batekin, ba trago bat hartzen lasai-lasai eta hitz egiten”. Hala, 18-34 urte bitartekoen artean, hiru kuadrila handi daude, beraien artean harremana dutenak. Nahiz eta bakoitzak bere zaletasunak edo afinitateak izan, denek talde handi bat osatzen dute.

Krisiak ere badira kohesioan

Legutio familia handi bat dela esan dezakegu, herri txiki bat, non ia denek elkar ezagutzen duten. Hori horrela izanda ere, jakin badakigu herri guztietan egon ohi direla gatazkatxoak edo ezinikusiak. Duela urte batzuk gertatu zen krisi esanguratsua, gainera bi agente garrantzitsuren artean: Udala eta gazteak. Momentuan gatazka handia lehertu zen eta nolabaiteko banaketa ekarri zuen, baina gaur egun, talka horrek leuntzera egin du.


Herri “euskalduna”

Denek ez badute ere herri euskaldun bezala ikusten, bada zati bat hala sentitzen duena. Elkarriketatu batek ñabardura egiten du:

(LG02): Legutio herri euskaldun bezala ikusten diat. Gero, banatu nahiko nike pixkat eh, euskaldun hiztun eta euskaldun politiko... Ez? Pixkat horri ezta? Politikoki esan deikeau oso euskaldune dala, gero ia... hizkuntzari edo hitz egite horri dagokionen... Ah! (hasperen egin du) Etzekit, esango nitek gabezia asko daula.

Azken hauteskundeetako emaitzei erreparatuta, argi ikusten da esan nahi dena: erabateko gehiengoa abertzalea da. Abertzaletasuna euskalduntasunarekin lotzen du elkarriketatuak, nahiz eta euskaraz ez hitz egin. Identitatea aipatzen da, praktika baino.

1. grafikoa: Zinegotzien banaketa udalean, Legutian (jatorrizko irudia bere horretan ekarria)




Iturria: *El País* egunkaria <https://resultados.elpais.com/elecciones/2019/municipales/14/01/58.html>

5.2. EUSKARARI LOTURIKO EZAUGARRIAK

Herri euskalduntzat hartu/sentitu edo ez, Legution euskararen ezagutza handia da. Adineko batzuk oraindik mantentzen dute bertako hizkera, eta gazteago diren asko, guraso gazteak gaur egun, ikastolan eta eskolan ikasiak dira euskaraz. Ondorengo irudian jaso dugu euskara-gaitasunak izan duen bilakaera.

2. grafikoa: Euskaldunen bilakaera, Legution. 1981-2016 (%)



Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua

2. taula: Euskaldunen bilakaera, Legution. 1981-2016 (%)

	1981	1986	1991	1996	2001	2006	2011	2016
Euskaldunak	20,5	27,9	30,8	37,5	35,8	37,0	38,5	44,3
Euskara ulertzen dutenak	18,7	16,5	15,7	14,3	27,7	28,9	27,2	18,2
Erdaldunak	60,8	55,6	53,5	48,2	36,6	34,1	34,3	37,5

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsua

Ondorioz, ezagutza handia da, baina praktika ez da horren handia. Hala ere, badaude pertsona jakin batzuk ia euskaraz bizi direnak, edo euskara sarri erabiltzen dutenak, konzienteki.

Eskolan euskaraz ikasten da herrian bertan 12 urte arte. Gero Duranara joaten dira, Ikasbidea eskolara. Eskola honetara Gasteizko gaztetxo asko gerturatzeko dira, eta euren herriko kuadrillaz gain, Gasteizko kuadrilla ere badute legutiar askok. Horren-

bestez, Legutiotik atera eta beste gaztetxo batzuekin elkartu eta harremanetan jartzen dira, eta horrek badu eragina euren hizkuntza-erabileran edo mundu ikuskeran. Hori dela eta, Legution gazte-talde handia osatu den arren, badira Gasteizera begira jartzen direnak, eta herriarekin duten lotura arintzen dutenak. Herriko gazteak elkarrekin ibiltzen dira, baina ez denak, batzuek Gasteizen baitute euren aisialdirako lagunartea.

Legutio eta Gasteizen arteko lotura honek hizkuntza-ohituretan duen eraginaz iritzi ezberdinak daude. Elkarriketatu baten arabera:


(LG04): "Gasteiz eta Legutioko egoerak antzeokoak dira.

Eta arreta guraso gazteengan jarrita, hau gaineratzen du:

(LG04): Ta hemen dauden guraso euskaldunak, danak, printzipioz, ia guztiek euskaraz jakin beharko lukete edo badakite, baina ez dago erabilpen hori. Eta Gazteizen berdina gertatzen da.

Egoera honetan aurrerago sakonduko da, baina, aipu honen harira, EUSTATEk euskararen etxeko erabilerari buruzko datuak ekarri nahi izan ditugu.

3. grafikoa: Etxeko erabilera, Legution. 1991-2016 (%)



Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua

3. taula: Etxeko erabileraren bilakaera, Legution. 1991-2016 (%)

	1991	1996	2001	2006	2011	2016
Euskara	7,5	4,2	6,9	8,6	9,1	8,2
Gaztelania	84,7	78,1	79,5	79,7	76,6	74,5
Biak	7,3	17,4	12,7	10,6	10,2	13,7
Beste bat	0,5	0,3	0,8	1,0	4,1	3,7

Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsua

Bestalde, bertako kaleen paisaiari begiratu gero, euskararen presentzia handia da, herriaren parte balitz bezala. Adibidez, frontoian mural bat dago “Kirolean euskaraz” dioena. Balkoi batzuetan, oraindik ere, nahiz eta hilabete batzuk pasa diren, *Euskaraldiko* banderolak ikusten dira. Plazan bertan, okindegiko atean: “Hemen ere euskaraz” dio kartel batek. Paisaiarekin bat eginik, euskararen aldeko giro bat dago, eta ez omen da kontrako diskurtso edo jarrerarik herrian:

(LG02): Guztiz kontrakoa. Nahiz eta igual kamarero batek jakin ez, edo ondo ez hitz egin... baina argi eta garbi zeok, bere jarrera euskararen aldekoa dela % 100n.

5.3. EUSKARARI LOTURIKO SAREAREN AHULEZIA

Euskararen indarberritzea helburu duen sare sendorik ez dugu topatu, nahiz eta herrian baden euskara-elkarte bat. Aldiz -eta geroago aipatuko denez- badira erreferenteak, hizkuntza-erabileraren militanteak edo ekintzaileak. Eta ezagunak dira herriarren artean.

Euskararen aldeko sarea baino, gazte-sarea aipatu beharko litzateke, deigarria baita hainbat belaunaldiren artean halako harremana egotea. Elkartze honetan herriko gazte-asanbladak zeresan handia du.

6. LEGUTIOKO GAZTEAK, (HIZKUNTZ) IDEOLOGIAK, PRAKTIKAK ETA BIZIPENAK

Gazte-asanbladaren bueltan herriko gazteen zati handi bat biltzen da, batzuk modu antolatuagoan eta beste batzuk ekimenetan parte hartuz. Hala ere, gazte-talde horren barrenean, hiru azpitalde daude, adinka banatuak: nagusien kuadrilla (26 urtetik gora), tartekoak (22-25 urte bitartekoak) eta gazteenak (16-21 urte bitartekoak).

Azpimarragarria dirudi -hala diote elkarrizketatuek- sexuaren arabera bereizketarik ez egotea, ez bederen beste testuinguru batzuetan gertatzen den neurrian.

(LG01): Gu ibiltze gattuken kuadrilen, etzekiak baino neskak eta mutilek, eh oso parekatuk eta elkarrekin betik ta, azkenen bai.

(LG03): Hemen denok nahastuta... Baina betidanik gainera eh! Ez da egon inoiz neska eta mutilen kuadrila bat, inoiz. (...) Denok batera, arazorik gabe.

Edonola ere, herrian edo kalean ibiltzeko orduan ez, baina euskararekiko atxikimenduan badira genero ezberdintasunak. Hala diote behintzat 2018ko *Euskaraldia* dela eta jasotako datuek⁶: Legution, denera, 280 parte-hartzaile egon ziren. Horietatik, 182 ziren emakumezkoak (% 65), 95 gizonezkoak (% 34), eta 3 (% 1) ez bitarra. Denera 206 ahobizi izan ziren eta 74 belarriprest. Lehenengoan artean, % 66 emakumezkoak ziren, eta belarripresten kasuan % 61.

Gazteen artean, hauek izan ziren parte-hartzearen datuak adin tartearen arabera: 16-20 urtekoak % 5 izan ziren, 21-30 urtekoak % 11 eta 31-40 urtekoak % 22. Adin-tarte guztietan ahobiziaren rola nagusitu zen. Esate baterako, gaztetxoaren artean % 100ek hartu zuen rol hori. Generoaren arabera datuak aztertuz, ikus daiteke joera orokorra -alegia, emakumezkoen parte-hartzea handiagoa izatearena- berres-ten dela adin-tarte guztietan. Horrela, 16-20 urtekoen artean emakumezkoak % 62 izan ziren, 21-30 urtekoen artean % 80, eta 31-40 urtekoen artean % 65.

Datu hauek zehazki Legutioko errealitatea islatzen badute ere, azpimarratu behar da Euskal Herri mailan emandako datuekin bat datozeela, oro har 2018ko edizioan hiru parte-hartzailetik bi emakumezkoak izan baitziren, zehazki, parte-hartzaile guztien % 62,2⁷.

6.1. GAZTEAK: HIZKUNTZ IDEOLOGIAK

Euskarari buruz galdetzean, ez dugu ideologia, diskurtso edota irudikapen indartsurik nabaritu. Badaude euskararekin lotura emozional edo sentimentalagoa dutenak, askotan familiari lotuta. Ondorioen atalean aztertuko denez, harreman hau maiz

⁶ Euskaraldiaren inguruan ematen diren datuak "Euskaraldiko datuak Legution" izeneko txostenetik atera dira. Txostena Udaleko euskara eta kultura teknikariak helarazi digu.

⁷ Datua "Euskaraldia zenbakitan" izeneko txostenetik aterata dago. Euskaraldia eskatuko txostena da Gaindegiak egina.

ageri da gazteen inguruan egindako azkenengo azterketetan (Hernández, Santamaria 2021): familia litzateke euskararen bermea emango lukeena, modu sinbolikoan (euskara erabiltzeko legitimazio altuena familia euskaldunen kideek izango lukete), zein praktikoan (familia euskaldunetako gazteak dira -beste gazteen ikuspegitik- euskaraz egiten dutenak).

Legution ere, euskara etxeko hizkuntza izan dutenek lotura handiagoa omen dute euskararekin, batzuk praktikan baino gehiago, emozionalki. Hauek euskara erabiltzen dute etxean, eta kaleko lagunarteko giroan, aisialdian, nagusiki gaztelaniara jotzen dute.

6.1.1. Euskararen ideologiaren “fossilizazioa”

Euskarari buruzko mezuak duela urte batzuk entzuten genituen berdinak edo antzekoak dira: “Nire ama hizkuntza da, daukat lotura hori euskararekiko...”, “sentimendu hori”, “Euskal Herriarekin lotua”, edo altxor eta identitatearekin lotuta.

Jaso dugunaren arabera, euskararen erabilera lotuago dago folkloreakin edo zenbait ekimenen balio sinbolikoarekin, eguneroko praktika arruntekin baino. Legution euskara gehiago entzun daiteke hainbeste maite duten “triki-poteo” giroan, edo, zer esanik ez, *Korrika* edo bertso-afarien jira bueltan.

(LG01): Bai izaten da txute baten modukoa. Beti antolatzen ditugu holakoak eta Korrika egiteko finantziazioa lortzeko bazkarian, beti bertso bazkari bat edo egiten dugu, beti hori euskera pilo bat entzuten da. Gainera, hor lortzen dugu batzea jende ezberdina nagusiak eta gazteak. Eta gero Euskaraldian eta ere holako dinamikak herria behintzat nabaritzen dira; gero igual azkar ahazten dira eta azkar joaten zaie, baina momentuan bertan nabaritzen dira ta jendea konstante da e igual egunean zehar ez baina heltzen dira holakoak eta jo egia da euskera daukagu hor eta ez dugu erabiltzen ta momentu hoietan konturatzen da.

6.1.2. Kontraesanak edo kargak

Euskara ezagutu eta ez erabiltzeak kontraesana sortzen du hainbatengan:

(LG03): Jum, ba pixkat desastre. (barrez) Ze beti esaten dut nire ama hizkuntza euskara dela, eta daukat euskararekiko lotura edo... bai, sentimentu hori, baina nire egunerokotasunean ez dut erabiltzen. Ez dut praktikan jartzen, orduan, desastre. Azkenean, euskara, euskara, euskara... Euskarari eman behar zaio bere garrantzia, ez dakit zer... Baina gero kafe bat hartzera zoaz eta erderaz egiten duzu lagunen artean, eta denak ulertzen dute euskara.

Hala ere, ez da denen kasua. Gehienek ez dute karga edo presio berezirik sentitzen euskaraz hitz egiteko, eta karga hori bizi dute euskararen egin behar diskurtsoaz. Gehienei ez zaie berez ateratzen euskaraz hitz egitea, ez daukate halako bulkada edo

motibazio berezirik; baina euskaraz egin beharra, diskurtso hori, zama da beraientzat. Euskara, batez ere, eskolako hizkuntza da eta kalekoa gaztelania. Joera hau “naturalizaturik” daukate. Hainbatek ez dute aldaketaren beharrik sentitzen, ez dute beharrik ikusten ohitura horiek aldatzeko, beraientzat “konfort” egoera delako. Beste batzuk, aldiz, aldaketa beharko lukeela uste dute, eta haien kaleko erabilpen ohiturak bestelako beharko lukeela. Gutxi batzuk, oso gutxi, praktikara eramaten dute euskara ere erabiltzearena aisialdi eta kaleko eremuan. Badira euskaraz eroso sentitzen ez direnak ere. Familia hizkuntza gaztelania dute, kaleko eta lagunartekoa ere bai, eta euskararekin eskolan soilik izan dute harreman handia. Horrela, euskara, ikas-tearekin eta arauarekin lotzen dute.

Eskolaren edo hezkuntzaren eremuan dute gazteek presio handixeagoa euskara erabiltzeko, irakasleekin edota begiraleekin euskara erabiltzea baita “politikoki zuzena”. Gazte hauetako askok beraien ikasketen ibilbide osoa euskaraz egingo dute, unibertsitatea barne, baina hortik kanpo oso gutxitan erabiliko dute euskara.

6.2. GAZTEAK: HIZKUNTZ PRAKTIKAK

Eskolaren testuinguruan, espazio arautu eta behartu horretan, ez da harritzekoa gaztelania ere entzutea, batzuek erosoago darabiltelako, beste batzuek transgresio moduan. Irakasleek adierazi dute ikasle askok ez dutela erraztasunik euskaraz aritzeko.

6.2.1. Kode ezkutuen irakurketa

Aurrean daukaten solaskidearen arabera, hizkuntza-hautu bat edo bestea egiten dute, eta gehienetan gaztelarara jotzen dute. Hau da, pertsona oso zehatzekin badakite euskaraz egin behar dutela, baina beste guztiekin gaztelarara joko dute. Edota, bi pertsona euskaraz ari badira, taldea handitzean gaztelarara pasako dira “automatikoki”.

(LG03): Ta gainera daukazu dena etiketatuta bezala... Badakizu pertsona honekin egin behar dut euskaraz, bueno egin behar dut... Pertsona honekin euskaraz, beste honekin erdaraz... Beste honekin euskara eta erdera... Bai ia buruak badaki espazio bakoitzean ze hizkuntza erabili. Da ia txiparekin zoaz eta automatiko egiten duzu horrela.

Gazte-asanbladetakako bilerak “naturaltasunez” egingo dituzte euskaraz, baina handik ateratzean, lehenengo zuritza hartu orduko gaztelarara joko dute pertsona horiek. Pertsonaz gain, testuinguruak ere eragiten du honenbestez. Bilerak euskaraz, aisialdia gaztelaraz. Gazteen artean espazio formaletan euskaraz aritu ohi dira, eta informaletan, lagunartekoetan edo kalekoetan gaztelarak hartzen du lekua. Gazte-asanbladak bere bilera guztiak, kartelak, sare sozialetako komunikazioak, whatsapp taldeko jarduna... dena euskaraz egiten du.

Dena dela, aisialdia non burutzen den, horrek ere badu eragina beraien praktikan, hainbat kasutan:

(LG03): joder egin beharko genuke gehiago euskaraz... ez dugu erabiltzen... sustatu behar dugu... Baina bai, geratzen da beti hor ba, pixka bat... Gero egia da, ba hori igual Debara goaz, edo ez dakit beste leku batera goaz euskara, euskara erabiltzen den toki batera goaz... Euskaldun, euskalduna den toki batera goaz eta euskaraz egiten dugu...

(Elkarrizketatzailea): Ah bai?

(LG03): Eta ez daukagu erderara jotzeko tendentzia hori. Osea da hemen, da hau. Herri hau, testuinguru hau.

Elkarrizketatzailea: Deban zer, jai kontestuan?

(LG03): Ez, ba hondartzara zoaz, mismamente... Ezagutzen duzu, tipo... Edo ezaguna zaizun norbait, eta bere lagunak hurbiltzen da eta euskaraz egiten dugu. Ez dugu erderaz egiten, egiten dugu euskaraz... Edo ni adibidez, praktikan egon naizenean irakasle batekin, tal edo noseke... Klean euskaraz egiten duzu. Edo praktikan koinziditu duzu norbaitekin eta kafe bat hartzeraz zoaz, eta euskaraz

egiten duzu. Osea... Nun zauden eta norekin zauden, eske asko egiten du horrek ez?

6.2.2. Errekurtsoen falta

Nahiz eta euskara ondo jakin, komentatu dute askotan falta zaiela adierazkortasuna, lagunarteko giro batek eskatzen duen errekurtso informaletarako euskarriak.

(LG03): WhatsApp- ez ari naizela norbaitekin hitz egiten eta gertzen naizela tipo, errekurtso gabe. Osea, ez errekurtso gabe, baina kostatzen zaidala. Igual adieraztea nik nahi dudana, nik nahi dudan moduan euskaraz. Eta nik uste dut hori, nik egiten dut egunero euskaraz... Karo nik pentsatzen dut orain, euskara noizean behin erabiltzen duen pertsona batengan... errekurtso edo hainbeste baliabide ba, egin ahal izateko zuk ahal duzun moduan. Igual erderaz adierazten zara hobeto edo espresatzen zara hobeto... Ez dakit...

6.2.3. Erresistentziak eta eraginak

Giro honetan, badira konszienteki euskara darabiltenak ere, kode ezkutua aintzat hartu gabe eta testuinguruari jaramonik egin gabe, nahiz eta talde handian egon. Pertsona zehatzek euskaraz bizitzeko hautua egina dute. Eta beraien helburua ere lortzen dute: eurekin jendeak euskaraz egitea. Hala, pertsona zehatz horiekin jendeak euskaraz egin behar duela jasota dago kode ezkutuan, eta hala egiten diete.

Pertsona horiek taberna giroan, aisialdian eta kalean euskararen erabilpenean eragitea lortzen dute. Hau da, ez da ezinezkoa euskara entzutea, izan ere, jendeak jakin badaki. Lehen kuadrila batzuek dena gazteleraz egiten zuten, eta pertsona horien eraginez, tarteka, praktika hori aldatu egiten da.

6.3. GAZTEAK: HIZKUNTZ BIZIPENAK

Euskararen bueltan izaten dira momentu bereziak, eta batez ere, jendeari *Korrika* etortzen zaio burura. "Urtegian *Korrika*" ekimenean *Korrika* txikia egiten dute eta herriko jende asko batzen da, gainera, jai giro batean, eta horrek asko laguntzen du Legutian.

*Korrikarekin batera, eta aurretik aipatu den moduan, Euskaraldiak izan zuen eragina, baina batez ere lehenengoak (2018an egindakoak). Bigarrenean testuingurua desberdina zen, pandemia tarteko, eta giroa hotzagoa. Adibidez, elkarrizketatu batek aipatzen du nola bere lagun batzuek *Euskaraldiko* postutik ihes egin zuten beste bide bat hartuta.*

(LG03): hemos huido, joan gara.

Batzuek euskara oroitzen negatiboekin ere lotzen dute:

(LG03): Bai batzuk entzuten dute euskara eta guztiz konotazio negatiboa ematen diote: ikasketak, aditzak, gaizki pasatu nuen, ez zait gustatzen... nire kuadrilan badauzkat horrelakok, en plan como pereza! Uste dut, behartzen dela euskaraz egitera, gainera ez da ondo irakasten... Azkenean testu liburu batzuk ematea eta aditz batzuk ikastea ez da euskaraz ikastea... Eta horrek egiten du euskararekiko jarrera, bamos! Txip aldaketa hori, ia euskara zeozer negatibo bezala ikustea... Testuinguru akademikoarekin lotzea eta karo, askori ba... Kriston ratu txarrak pasatzen dituzte euskararekin... Euskara ikasten, euskara aditzak, euskara errekupeazioak... Eta horrek ere eragiten du asko, zuk euskararekiko duzun ikuspuntuan eta zuk euskara erabiltzeko duzun, ba joera horretan.

Gainera, gero ez dute gehiegi erabiltzen, ez familian ez lagunartean. Erabili ezean, zailtasunak dituzte nahi duten hori erraz adierazteko. Gorpil zoro bat da: ez erabiltzeak zailtasunak dakartza, eta zailtasun horiek ez erabiltzea dakarte.

7. LEGUTIOKO GURASO GAZTEAK: (HIZKUNTZ) IDEOLOGIAK, PRAKTIKAK ETA BIZIPENAK.

Guraso gazte diren neurrian, gazteen atalean azaldu diren ideologia, praktika eta bizipen gehienak errepika genitzake honakoan ere. Baina haur txikien guraso izateak bestelako ideologiak, hizkuntz praktikak eta bizipenak ekartzen dituela ohartu gara, eta, hain zuzen ere, horietan jarri nahi dugu azpimarra.

Guraso gazteak, nagusiki, eskolak antolatzen dituen ekimenen inguruan elkartzeko dira, baina gurasoen artean taldeak nahiko banatuak daude. Guraso Elkarteak bete lezake elkargune funtzioa baina, ez dirudi gaur egun Guraso Elkarteak zeregin hori betetzen duenik.

Oro har, elkarbizitza lasaia da, baina lagun-taldeak nahiko definituta daude. Guraso gazte euskaldunek beraien artean elkartzeko joera dute, eta nabarmentzekoa da beraien direla herriko ekimenetan gehien parte hartzen dutenak.

7.1. GURASOAK: HIZKUNTZ IDEOLOGIAK

7.1.1. Euskararen gaiak, oro har, ez du kezka handirik eragiten

Orokorrean gurasoen artean euskara ez da intereseko gai bat. Guraso euskaltzale batzuk kezkatuta daude haurren artean euskara gutxi entzuten dutelako, baina gehientsuenei ez die gehiegi arduratzen. Guraso gazte erdaldunekin egindako talde elkarriketa batean horrelako adierazpenak jaso genituen

(LGG02): Mi marido no habla euskera entiendo pero tampoco le interesa demasiado y entonces en casa es castellano prácticamente. (...) entre los euskaldunberriak no tenemos eso del euskera como qué pasa con el euskera si se pierde.

Hain zuzen ere, guraso euskaldunekin osatutako talde elkarriketan guraso batzuen jarrera pasiboan aipatzen zuten:

(LGG03): (...) bastante pasiboak hizkuntzarekiko, bueno ez dotziela garrantziarik emoten.

7.1.2. Euskara eskolari lotutako afera

Guraso gehienek euskaraz hitz egiteko hautu garbirik ez dute egin, eta beraiantzat euskara eskolari lotuta dagoen gaia da batez ere. Zentzu horretan, euskarari dagokionez beraien egitekoa seme-alabak euskarazko eredura (D eredura) eramatearekin nahikoa dela pentsatzen dute. Nabarmendu behar da guraso hauetako askok ere D ereduan ikasi dutela haurtzaroan zein gaztaroan. Horrela dio hezkuntzarekin lotutako formazioa duen Legutioko gazte batek:

(LGG03): badauz beste (guraso) batzuk ni konturatzen naenak ba badakixiela euskeraz ikasi daubienak baiian dana erderaz itten daurienak beraien etxian eta beraien normaltasunian erderaz itxen daubienak eta hori itxen dute berdina beraien seme-alabekin; hau da, euskeraz ikasi baina beste dana erderaz eta uste dot gehiengo bat hori dala.

7.2. GURASOAK: HIZKUNTZ PRAKTIKAK

Jada esana dago aurretik. Herri txikia izanik, Legution denek ezagutzen dute elkar. Guraso-taldeek (kuadrillek) ere elkarren berri badute, eta jakina da batzuen eta besteentzen hizkuntza-praktika zein den. Herria ezagutzen duenak edo herrikoa denak jokoera ezberdinak antzematen ditu erraz:

(LGG04): ikusiko duzu kuadrila batzuk, guraso batzuk finkoak betikoak. Horiek ikusiko dituzu semeekin euskaraz hitz egiten. Baina identifikatuak daudenak. Nik oso identifikatuak dauzkat.

(LGG02): hay otros grupitos que los padres hablan en euskera. Solo en euskera.

7.2.1. Guraso izatean euskararekiko kontzientzia handiagoa

Guraso izateak askotan dakar euskararekiko kontzientzia eta praktika indartzea. Hori baieztatu digute gehienek, alegia, guraso asko hurrak izan ondoren hasi direla lehen baino gehiago euskaraz hitz egiten. Hona hemen hiru lekukotza:

(LGG03): Nere kuadrillan ohitura eduki dogu erderaz eittea, hori bai. Nahiz eta, danak euskaldunak izan ohitura euki dogu, oin hasi gara oin dala urte batzutatik hona gehixau gure artien euskeria sartzen eta egixa da bebai nik umiak eduki ditutenetik nik giro euskaldun baten nahi ditut euki nire umiak orduan nik ein doten taldia bebai euskaldunak izen dira. Euren erosotasunerako eta bueno ni bebai nahi dotelako eurak euskaraz bizitzia.

(LGG03): Nik adibidez nabaritu dut ba umia jaio zanetik euskara gehio landu dot eta berreskuratu dot hikuntza eta nahiz ta ama hizkuntza izan kuadrilan eta Legution ba ez dugu hitz egin hainbeste eta gero ba hori daukozu hor ez da ahazten eta ez baldin badozu erabiltzen ba, eta gero ba umia jaio zan ba hortik aurrera ba lanean saiatu naz ba euskaldun jendiakin euskeraz eiten eta ez galtzeko ta azkenean erraztasuna eta gehiago lantzen dozu.

(LGG03): Ba igual euskera eztauen hainbeste erabili konturatzen ze garrantziatsua dan eta asko hasi dire ikusten edo umiei bebai euskeraz hitz egiten, eta eduki daurie apurtxu bat e apartauta bezela.

7.2.2. Gurasoak seme-alabekin euskaraz, beraien artean gaztelaniaz

Konstatazio hau ez da berria, hainbat ikerketa eta neurketatan azpimarratu da gertaera hau, eta gure informatzaileek ere, oro har, inpresio hori dute:

(B01): gertatzen dena da, ume txikiekin eta bai euskaraz, eta gero gure artean erderaz, baina bueno

7.2.3. Solaskidearen arabera hizkuntza bat edo beste

Seme-alabak izatea euskararen erabilera areagotzeko piztaile izan bada ere, askotan aurrean duzun solaskidea da erabakigarria euskaraz ala gaztelaniaz aritzeko. Hala dio ama batek:

(LGG03): segun eta zeinekin egoten garen guk ohituria dauku euskeraz hitteko”.

Askotan oso garbi egoten baita nola egin batzuekin eta nola besteekin:

(LGG03): batzuekin inpensable da itxia erderaz eta beste batzuekin inpensable da euskeraz itxie osea, ohituria

(LGG03): badakizu nork iten duaen euskeraz eta nork erderaz orduan sartzen dozu bata edo bestia.

7.2.4. Gurasoak nerabe zirenean baino gehiago hitz egiten da euskaraz

Jaiotzez legutioarrak ez diren gurasoak Legutiora bizitzera etorri zirenean herri euskaldunagoa topatzea espero zutela esan digute “ni etorri nintzenena Legutiora atentziñoa deittu sosten jende danak erderaz eitten zauela” (LGG03), aitzitik, berta-koak diren gurasoek bere gazte denboran baino euskaraz gehiago hitz egiten denaren sentazioa dute:

(B01): Herrian gero eta gehiago entzuten dut. (...) Nik ikusi dudana, txikitatik hona, gehiago entzuten dut.

(LGG03): Igual herrian oin bebai gazteauak dienak igual dauz kuadrilatxo gehio lantzen dutenak, gu gure kuadrilan behintzat antzen genua baino gehixau oin (...) esaten dot gazteauak dienak ba igual kalian hitz egiten dauela gehixau in kalian euskeraz (...) bai guk hitz egiten genua baino gehixau (...) Guk igual eskolan eta ikasi dogu euskeraz baino igual gero kalian egiten genun beti erderaz eta oin gaztiauak dienak ba igual ikusten dozuz ba multzo batzuk ba hitz egiten dabiela euskeraz.

(LGG03): Ni bertakoa naz. Gero nere kuadrilan ohitura eduki dogu erderaz eittea, hori bai. Nahiz eta, danak euskaldunak izan ohitura euki dogu, oin hasi gara oin dala urte batzutatik hona gehixau.

7.2.5. Ezagutza bai, erabilera ez: pandemiarekin atzera

Esan bezala, Legutio herri euskalduna da herritarren iruditerian. Baina oso presente dago euskaldunen artean gaztelaniaz hitz egiteko joera handia dagoela. Are gehiago, Legutioko etxe askotan familia-hizkuntza gaztelania dela esan digute. Pentsatzekoa da, neurri handi batean, familia horietako seme-alabek eskolako eremuan besterik ez dutela egiten euskaraz. Hortik kanpo apenas dute aukerarik euskaraz aritzeko. Errealitate horrek bere ondorioa izan du pandemia garaian, izan ere, haur horien hizkuntza-praktiketan gaztelaniak indarra hartu baitu. Horrela dio informatzaile batek:

(LGG03): Taldetik 10 batek o holan euskeraz itxen zauriela normal normalki, bale batzuk beste batzuk baino gehixau baino normalki pandemia ostian geratu zien hiru edo lau bakarrik euskeraz hitz egiten beste danak erderaz itxen zabieta... baina eske hitzik bez dena erderaz, (...), etxian ikastola barik egon diela dana erderaz itxen baina dana eta kostau jako irakasliai ointxe emun dotzo pixkat bueltia.

7.3. GURASOAK: Hizkuntz bizipenak

7.3.1. Guraso euskaltzaleen inpotentzia seme-alaben lagunek erdararako joera dutelako

Guraso batzuek seme-alaben lagun-giroan gaztelania gailentzen dela somatu ostean ezintasun handia bizi dute. Horren aurrean, batzuk, kontzienteki guraso euskaldunekin elkartzea bilatu dute, modu horretara beraien seme-alabek adin-kideekin aisialdian eta jolasean espazio euskaldunak izan ditzaten. Elkarrizketatutako pertsona batek horrela adierazi du:

(LGG03): nik umiak eduki ditutenetik nik giro euskaldun baten nahi ditut euki nire umiak orduan nik ein doten taldia bebai euskaldunak izen dira. Euren erosotasunerako eta bueno ni bebai nahi dotelako eurak euskaraz bizitzia.

7.3.2. Eskola ez da nahikoa, guraso gisako erantzukizuna

Eskola ez da ahalguztiduna ikasleen euskararen erabilera bermatzeko. Hori badakite gurasoek, eta euskaltzaleen ahaleginak egin nahi dituzte beraien esku dagoena egiteko. Kontziente dira, gainera, hizkuntza ongi menperatzea garrantzitsua dela seme-alaben ibilbide akademikorako. Horrela diote ikerketan parte hartu duten guraso batzuk:

(LGG03): Institutura doaiz eta hor dau ulermen arazoak bebai eta hizkuntza, osea azkenian hizkuntza.

(LGG03): Zu iyozu euskeraz eta ez badaki ikasiko dau, iyozu faboria.

(LGG01): Duranara joaten dira eta erraztasun gehio gero eta hobea da umeentzat gainera.

Gurasoei akademikoa pisuzko arrazoa iruditzen zaie haurren artean euskararen erabilera bultzatzeko. Are, euskaltzale ez diren gurasoengana iristeko ere balio dezakeela azpimarratzen dute.

Euskararekiko atxikimendu ahulagoa duten gurasoek, ordea, ez dute hain eragin-korra ikusten eskolaz kanpo haurrei euskaraz egitea bultzatzea. Eta beste ikerketa batzuetan agertu den moduan, Legution ere "derrigorren" ideia aipatzen da:

(LGG02): Como está obligada en la ikastola, les obligan claro, pues en la calle con su grupo de amigos prácticamente es casi todo en castellano a no ser que este con unas niñas que en su casa, a muchos padres se les oye en la calle "noseque euskeraz", "noseque euskeraz". Porque yo pienso que esta bien que los críos hablen euskera pero en algún caso se les obliga demasiado a los críos (...) también hay que darles un poquito de margen y cuando se les obliga es peor.

7.3.3. Seme-alabei ahaztu egiten zaie beraien lagunek euskaraz badakitela

Guraso batek baino gehiagok aipatu digu haurrei gogorarazi behar dietela beraien lagunek euskaraz badakitela. Horrela zioten bi gurasok:

(LGG03): nire alabak esateozten `ya baino eske eztaki euskeraz ama´ eta nik baietz badakixela zu iyozu euskeraz.

(LGG01): esaten diet nere umeei mesedez euskeraz ze ulertzen dute denek ze hauei badakit ahazten zaiela eta hauei be geratzen zaie, osea ahazten zaie besteak ulertzen duela.

8. AZKEN GOGOETAK

Ikerketaren amaieran, datu guztiak mahai gainean edukita, egoera ezkortasunez ikusteko tentazioa izan dezakegu, zer eginik ez balego bezala, baina Legutioko hizkuntza ohiturak aldatzeko aukerak badaude, *Euskara Legutioko Moldera* egokitzen badugu.

Jarraian, ikerketan zehar Legution topatutako elementu adierazgarriak zerrendatuko dira, hizkuntzaren kudeaketari begira garrantzitsuak diruditen horiek. Behin elementu horiek identifikatuta, jorra daitezkeen hainbat lan-ildo proposatuko dira.

Herriko errealtatera eta hizkuntza-dinamikara hurbilpen xumea egitea izan da ikerketa honen helburua. Atal honetan jaso ditugu egindako lanean topatu ditugun elementu adierazgarriak.

8.1. Euskararen lurra, euskararentzako lurra

Legution euskararen aldeko giroa dago. Bertan egonda antzematen da eta elkarrizketatuek ere hori diote. Beraz, esan daiteke Legutio proposamenak egiteko eta lan-tzeko lur emankorra dela.

(LG01): Ambiente bat badago. Proeuskera, hori da proeuskera bada jendea ez du erderaren erabilera bultzatzen, kontrakoa jendeak erabiltzen du euskeraren erabilera eta igual tabernara zoaz eta tabernan eskatzen duzu beti euskeraz eta gero ematen duzu buelta eta kuadrilarekin erderaz, baina bultzatzen da eta kanpotik pertsona bat datorrenean herrira e jende, beste pertsoan horrek euskeraz hitz egiten badu eta euskeraz hasten bada kuadrilako guztiek hartzen dute ohitura hori. Adibidez, oin dela gutxi nire neskalauna etorri zen hona, bera euskeraz hitz egiten du leku guztitan, bera euskara asko erabiltzen du.

8.2. Gazteak saretuta, euskararen harrobia ote?

Azken urteetan aldaketak egon dira herriko gazte giroan, orain talde kohesionatua da, euren indarrean ere sinesten dutenak, eta motor nahiko aktiboarekin. Baina batez ere, gertuko harremanak dituzte euren artean, adin desberdinetakoak badira ere:

(LG03): Orain 34 urteko batekin da 17 urteko batekin mahai baten egotea... Joe! Hori, orain dela 7 urte zan imposible! Guretzako nagusiak ziren komo... nagusiak. Eta txikiak ziren komo, txikiak. Da orain pixkanaka hasi gara nahasten eta gauzak elkarrekin egiten, eta orduan...

Herri giroa ere badago, Legutiok herri identitatea ere badu, eta kaleko giroa badago. Harremanak hoztu egin dira azken urteetan, batez ere udalaren eta gazteen artean.

Edonola ere, gazteen artean sumatzen den taldetasuna potentzialitate handiko elementua litzateke, uste baitugu -gazte garaian bereziki- kolektiboa eta taldea gune proposa dela, aldaketak planteatu, landu eta gauzatzeko (Hernández; Altuna 2021). Hau kontuan izanik, interesgarritzat jotzen dugu gazteei protagonismoa ematea hizkuntza-ohituren aldaketan parte aktiboa izan daitezen.

8.3. Guraso taldea, erabakiak hartzeko gunea/unea

Familiak hizkuntza-eragile garrantzitsuak dira, eta, batzuetan oharkabean bada ere, hizkuntza-politika diseinatu eta garatu egiten dute. Etxeko hizkuntza zein izango den, euren haurren hezkuntza eredia zein izango den, aisialdian zein hizkuntza nagusituko den, horiek dira, besteak beste, euren gain hartzen dituzten erabaki potoloak. Eta horiekin batera, beste asko eta asko, txikiagoak diruditen arren egunerokoa blaitzen dutenak, esate baterako, parkeko hizkuntza zein izango den.

Familiak hizkuntzaren eremuan duten erabakimena antzeman dugu ikerketan zehar eta horrekin lotutako ondorio pare bat atera ditugu. Batetik, hau serio landu gabeko esparrua dela. Bestetik, eta aurrekoaren harira, familiakoa da, une honetan, hizkuntza-ideologiarekin lotutako gune korapilatsuenetariko bat, bertan ematen diren tentsioak gizarte mailan gertatzen direnen isla izanik.

Idea honekin lotuta, begirada pausatu eta diskurtsoetan agertzen diren hiru elementu nabarmendu nahi ditugu.

Batetik, euskararen erakundetzeak edo instituzionalizazioak ekarritako eskolaren protagonismoa. 1980ko hamarkadatik hona, eskola euskararen berreskuratzekeko prozesuaren erdigunean egon da, funtzeskoa izan da hizkuntza-politikan. Egun ere ezinbesteko zutabea izaten jarraitzen du. Eskolaren eremutik etorritako lorpenak ezin dira zalantzan jarri, baina, gure ustez, zentraltasun horrek gurasoen ardurak desitxuratu egin ditu.

Eskola eta euskararen derrigorra lotuta agertzen dira hainbat diskurtsotan, aldiz, ez du ematen familia-gunearen papera eztabaidagai denik. Modu lausoan bada ere, eskolak noraino "derrigortu" dezakeen planteatzen da hainbatetan, baina familiak euskalduntze prozesuan duten papera bigarren maila batean geratzen da. Gurasoek ez dute gogoeta argirik egiten hizkuntzaren aferan dituzten betebeharren inguruan. Eta autokritika gutxi dago. Honek lotura du aipatu nahi dugun beste elementu batekin: natibismoa edota naturalizazio prozesuekin (Martin Rojo, 2020).

Beste ikerketa batzuetan agertu den moduan, Legution jasotako diskurtsoetan ere familiak pisu nabarmena du euskararen erabileraz hitz egiterakoan. Are gehiago, askotan elementu erabakigarri gisa agertzen da. Hala, familia euskaldunak dira euskararen jarraikortasunean eta erabileran lidergoa dutenak. Hiztunak familia euskaldunetakoak edo familia erdaldunetakoak diren bereizi, eta horren arabera ulertzen eta aztertzen da euren jokaera. Are gehiago, horren baitan sortzen dira haiekiko aurreikuspenak.

Honek presioa sor dezake familia euskaldunengan, baina baita ere erlaxazioa (euskaldun gisa izendatua izatearekin nahikoa da). Familia erdaldunen kasuan, motiba-

garria eta lagungarria izan daiteke “muda” bat saiatzeko; edo aitzakia bat pasibotasuna elikatzeko eta ardurak eskolan delegatzeko. Nolabaiteko inertzia antzematen da familiako hizkuntz jokaeretan: (bertako) kide gazteenak euskaldunak badira ere, bakarrik familia euskaldunetan espero da euskara erabiltzea eta entzutea.

Eta jokaera hauekin lotuta, hirugarren elementu bat agertzen da: pribatua eta publikoaren arteko banaketa; autonomia eta elkarrekikotasunaren arteko bereizketa. Familia-guneetan hartzen diren erabakiak pribatutzat hartzeko joera dugu, jabetu gabe bere ondorioak eremu publikoan gauzatzen direla nagusiki. Hori horrela, hizkuntza dela-eta gertatzen diren afera txikien eszenatokia kalea eta parkeak dira, hainbat testigantzatan jaso denez.

Familia eremuan hartutako (hizkuntz) erabakiak autonomiaren ikuspegitik defendatzen dira maiz, eta ez da kontuan hartzen familia-gunea ezin dela ulertu pribatu-publiko elkarrekikotasunaren ikuspegitik ez bada: familiako erabakiak lotuta daude komunitate zabalago batekin; komunitatean hartzen diren erabakiek familiarengan eragina duten moduan.

Ikerketan zehar aipatu da euskararekiko kontzientzia falta eta horretan familiek duten erantzukizuna. Baina ziur aski ez da hizkuntzarekin lotutako kontua bakarrik, familiaren gaineko ideologia(k), jarrerak eta gizarte balioak ere tartean direla sumatu daiteke.

Goiko lerroetan esan dugu jadanik: familiaren rola serio (eta sakon) aztertu gabeko gaia da. Eta uste dugu Legutio bezalako herri batean aukerak egon daitezkeela horren gaineko lanketa planteatzeko.

8.4. Legutiok giltzarriak izan daitezkeen hiztunak baditu

Euskararen aldeko aktibistak badira Legution, oso antolatuta ez badaude ere, Euskara Taldea salbu. Euskararen giltza dute hiztun hauek. Giltzarriak dira. Izan ere, maila pertsonaletik bada ere, inguruan eragiten dute kontzienteki, euskaraz hitz eginez. Ikerketan zehar antzeman den moduan, hiztun hauek hizkuntz dinamikak aldatzeko gaitasuna dute: euren hitzak eragina du besteengan, apurtezinak diruditen ohiturak eraldatuz, beti euskararen alde. Eurekin bai ala bai euskaraz egiten da. Zentzu horretan, beste inora begiratu gabe, herriak bere eredu eta erreferenteak dituela esan daiteke.

9. ETORKIZUNARI BEGIRAKO PROPOSAMENAK

Txosten hau amaitzeko, aurrera begirako hainbat balizko lan-ildo zerrendatuko ditugu. Lan-ildo hauek pentsatu, eztabaidatu eta landu beharreko zeregin gisa irudikatzen ditugu. Izaeraz eta tamainaz, uste dugu Legutiok baduela gaitasuna eta potentzialtasuna bertatik ideiak sortu, eta bertatik lantzeko eta gauzatzeko.

Txikitasunak eta gertutasunak baditu bere zamak, besteak beste, ohiturei jarraitu beharra, elkarbizitza eta komunitatearen ongizatearen izenean tentsioei muzin egin beharra. Eta batzuetan, testuinguru horretan, euskara elementu deseroso bilakatzen da. Horregatik uste dugu garrantzitsua dela Legutiok euskararen bidea bere “moldean” eta bere “moldera” egitea.

9.1. Gazteei protagonismoa eman

Aurretik aipatu den moduan, une honetan bada gazte-sare bat, herrikoa eta herrian txertatua, ideiekin eta gogotsu gauzak egiteko. Euren ekarpenak funtsezkoak iruditzen zaizkigu herrian hizkuntza-politika edo plangintza bat garatzeko orduan. Tokia eta protagonismoa izan beharko lukete hausnartzeko eta erabakitzeko garaian.

Gazteek duten paperaz gogoeta egitera gonbidatu beharko genituzke, euren erreferentzialtasunaz jabetu, eta hiztun gisa duten potentzialtasunaz konturatzeko. Horrekin lotuta, gazteek hizkuntza-politikaz eta hizkuntza-plangintzaz duten ikuspegia mahai gainean jarri eta hori garatzeko aukera eduki beharko lukete. Ariketa hauek bereziki interesgarriak eta egingarriak iruditzen zaizkigu Legutio bezalako herri batean, jadanik gazteak saretuta dauden herri txiki batean.

9.2. Gurasoei eta familiei guneak eskaini

Gurasoek funtsezko papera dute hizkuntzen kudeaketan eta garapenean. Horregatik, kolektibo honi arreta berezia eta espezifiko eskaintzea garrantzitsua dela pentsatzen dugu. Euskararen ezagutzan murgiltzeko eta, oro har, euskararekiko harremanean sakontzeko ekimenak pentsatzea garrantzitsua iruditzen zaigu.

Ikerketa prozesuan zehar gurasoei zuzendutako “mintzalagun” moduko bat diseinatzea agertu da proposamenen artean. Bestalde, familia osoari zuzenduriko jarduerak eskaintzen dituzten aukeren lekuko izan gara, izan ere, ikerlanaren haritik egindako buztingintzaren tailerrak balorazio bikaina jaso zuen, bai antolatzaileen aldetik bai parte-hartzaileen aldetik. Bide honetatik, pentsatzen dugu ikasturte osoari begirako egitarau bat diseina daitekeela, hilean behingo ekitaldiekin bada ere, familiei zuzenduriko tailer baten inguruan batu ahal izateko.

Ekimen hauek (mintzalaguna edota familiei zuzenduriko tailerrak) lagungarriak izan daitezke euskararen gaineko sentsibilizazioa aregotzeko; baina baita ere, euskara maila ezberdina duten gurasoak harremanetan jartzeko eta euren arteko dinamika berriak lantzeko.

9.3. Herria euskararen inguruan batuko duen ekimenak sustatu

Aldiro aldiro, Legutiok *Korrika* edota *Euskaraldia* bezalako ekimen zabalei harrera egiten die eta bertakoek bat egiten dute euskararen inguruan. Baina ekimen horiez aparte, Legutiok bere ekimen propioak sortzeko gaitasuna izan du eta du. “Legutioko tabernetan euskaraz” ekimenak arrakasta handia izan zuen bere momentuan eta oraindik herritarren oroimenean dirau.

Aisialdiak pisu handia du Legution: kalea, parkea, taberna. Hori dela eta, aisialdiaren esparrua garrantzitsua izan daiteke komunitate osoa (haur, gazteak, helduak zein adinekoak) hartzen duten ekimenak garatzeko. Noizbehinka bada ere eta ekimen xumeak badira ere, hiztun guztiak barne hartuko dituen ekimenak bultzatzea interesgarria dirudi.

Era berean, euskararen inguruko jarduera puntualak izateaz gain, “programazio” iraunkor baten komenientzia ere aipatu izan da ikerketan zehar. Hilabetean behin, bi edo hiru hilabetean behin, baina euskara erdigunean hartzen duen ekimen iraunkor bat antolatzea jaso dugu proposamen gisa. Alegia, jarraikortasuna edukiko duen programazio bat, egutegian mantenduko diren ekimenez osatua.

9.4. Euskal hiztunen praktikak eredu: Egin klik!

Aurretik nabarmendu denez, Legution, herritar jakin batzuek euskaraz bizitzeko erabakia hartua dute, eta hori praktikara eramaten dute. Ikerketan zehar ikusi dugu hiztun horiek lortzen dutela herritarrek beraiekin euskaraz hitz egitea, eta horrela inguruko hizkuntza-ohituretan nabarmen eragiten dutela. Aldaketa posiblea dela erakustea interesgarria iruditzen zaigu, baita, modu batean edo bestean, hiztun horien garrantzia aitortzea eta jokabide horien egokitasunaz eta potentzialtasunaz hausnartzea.

Gauzak horrela, uste dugu hizkuntza praktika hauek herrian duten eragina ikusarazteko ekimenak pentsatzea interesgarria dela.

9.5. Euskararekin lotutako ideia eta irudi berriak

Txosten honen hasieran garbi adierazi dugunez, euskararen erabilera izan dugu aztergai nagusi ikerketa honetan. Hala ere, elkarrizketatu batek zioen moduan “*ez da bakarrik euskara erabiltzea*” (LG03), horretarako testuinguru apropos bat, giro bat behar da.

Fernando Ramallok (2020) hizkuntza erabilerarako bigarren mailako baldintza(k) gisa izendatzen du testuinguru edota giro hori, hizkuntzaren ezagutzak bezainbesteko pisua duena. Iritzi bera adierazten zuen Legutioko gazte batek euskararen erabileraren bultzadaz ari zenean: “*eta horretarako behar dituzu ba kontestu edo testuinguru motibatzaileak direnak...*” (LG03).

Orain arte -bereziki EAEn- ahalegin gehienak egin dira lehenengo mailako baldintzak ziurtatzeko, hau da, euskararen ezagutza zabaltzeko eta ziurtatzeko. Agian, bada garaia bigarren mailako baldintza horiei ere erreparatzen hasteko eta indartzeko.

Izan ere, testuinguru bat, giro bat egon ezean, egun jada ageri diren tentsio, talka eta hizkuntzarekiko deserosotasuna(k) euskararen garapenean kalterako eragin nabarmena eduki dezakete.

Testuinguru eta giro hori "eraikitze" iruditeria, diskurtso eta balio berriak behar dira. Ideia honek txosten honen hasierara eramaten gaitu berriz, hau da, hizkuntz ideologiaren garrantzia azpimarratzera eta horren inguruan gogoeta sakon bat egiteko gonbidapena egitera. Moralejok eta Ramallok diotenez, hor dago hiztun aktiboak lortzeko gako inportante bat (Moralejo eta Ramallo, 2019: 189).

Argi dago honako hau euskararen eremu osoa hartzen duen gabezia dela, eta ez dela Legutiokoa bakarrik. Baina, era berean, uste dugu Legutio bezalako herri txikian horren inguruko gogoeta eta ekimenak errazago bultza daitezkeela, esperimentazio edota saiakera moduan, bide berriak irekitzen hasteko.

Txosten hau sinatzen dugunok, teilatutik⁸ bada ere, etxea eraikitzen lagundu izana espero dugu.

⁸ Hemen, noski, buztin-lantegiari egiten diogu erreferentzia. Ekimen horretan teilak egin ondoren, horietan euskararekin lotutako esaldiak eta irudiak idatzi eta marraztu ziren.

10. BIBLIOGRAFIA

- Amorrortu, Estibaliz; Ortega, Ane; Goirigolzarri, Jone. 2017. "Euskararen hiztun ak-tibo bihurtzeko gakoak". Bat Soziolinguistika Aldizkaria 104, 11-49.
- Artetxe Sarasola, Miren. 2020. "Ipar Euskal Herriko bertso-eskoletako gazteen hiz-kuntza ibilbideak. Gazte identitateak, hizkuntza mudantzak eta legitimazio pro-zesuak". Doktorego tesia. Leioa: EHU.
- Artetxe Sarasola, Miren. 2018. "Hiztun berriak eta bertso-mundua. Legitimatua (ha)la auzitan jarri?" BAT Soziolinguistika Aldizkaria 109, 45-72.
- Eusko Jaurlaritz, Nafarroako Gobernua & Euskararen Erakunde Publikoa. 2016. VI. Inkesta Soziolinguistikoa. Euskararen eremu osoa. https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/9954/VI_INK_SOZLG-EH_eus.pdf?1499236557
- Goirigolzarri, Jone; Amorrortu, Estibaliz; Ortega, Ane. 2019. "Activación lingüística de jóvenes neohablantes de euskera en la universidad". In F. Ramallo, E. Amorrortu & M. Puigdevall (arg.) Neohablantes de lenguas minorizadas en el Estado español. Madrid: Iberoamericana Vervuet, 23-45.
- Goughlan, Eileen 2021. "Accommodation or rejection? Teenagers' experiences of tensions between traditional and new speakers of Irish", Journal of Sociolinguistic, 25, 1, 1-18.
- Hernández García, Jone M.; Santamaria Barinagarrementeria, Ainara. 2021. "Do It Yourselfetik planifikaziora. Euskal hiztun gazteak eta berreskurapenaren auziak". Fontes Linguae Vasconum, 132, 349-374.
- Hernández García, Jone M.; Altuna Ramirez, Jaime. 2021. "Taldean jardun, taldean hiztun. Euskara, praktika komunitateak eta kirolari nerabeak". Bat Soziolinguistika Aldizkaria 120, 73-92.
- Hernández García, Jone M.; Altuna Ramirez, Jaime. 2020. "Gazteak eta euskararen erabilera: egin gabeko galderak". Euskara, 65, 2, 445-479.
- Kulturaren Euskal Behatokia. 2012. "Gazteen Kultura Kontsumoa". Eskuragarri: https://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/contenidos/informacion/keb_argit_gazt_kultur_kontsumo/eu_def/adjuntos/gazteen_kultura_kontsumoa_2012.pdf
- Lantto, Hanna. 2015. "Code-switching in greater Bilbao. A bilingual variety of colloquial basque". Helsinki: University of Helsinki.
- Lantto, Hanna. 2019. "Convertirse en hablante activo del euskera durante la Semana Grande de Bilbao". In F. Ramallo, E. Amorrortu & M. Puigdevall (arg.) Neohablantes de lenguas minorizadas en el Estado español. Madrid: Iberoamericana Vervuet, 47-63.
- Martín Rojo, Luisa. 2020. "Genealogía del sujeto hablante como objeto de estudio sociolingüístico". In L. Martín Rojo; J. Pujolar Cos (coords.). Claves para entender el

multilingüismo contemporáneo. Zaragoza: Editorial UOC y Universidad de Zaragoza, 165-198.

Moralejo, Rubén; Ramallo, Fernando. 2019. "Las condiciones del (pre)neofalantismo y el proceso de conversión lingüística en Galicia". In F. Ramallo; E. Amorrortu; M. Puigdevall (eds.) Neohablantes de lenguas minorizadas en el Estado español. Madrid. Iberoamericana Vervuet: 165-183.

Muñagorri, Lander. 2020ko azaroak 22. Euskara, bideo jokoz kanpo. Berria. <https://www.berria.eus/paperekoa/2663/014/001/2020-11-22/euskara-bideo-jokoz-kanpo.htm>.

Ortega, Ane; Amorrortu, Estíbaliz; Goirigolzarri, Jone; Urla, Jaqueline. 2016. Los nuevos hablantes de euskera: experiencias, actitudes e identidades. Bilbao: Universidad de Deusto.

Ortega, Ane; Urla, Jaqueline; Amorrortu, Estíbaliz; Goirigolzarri, Jone; Uranga, Belen. 2015. "Linguistic identity among new speakers of Basque". International Journal of the Sociology of Language 231, 85-105.

Ortega, Ane; Amorrortu, Estíbaliz; Goirigolzarri, Jone; Urla, Jaqueline; Uranga, Belen. 2013. "Hiztun berrien hizkuntza identitatea: 'nolako euskalduna naiz?'" Bat Soziolinguistika Aldizkaria 87-88, 151-170.

Ramallo, Fernando. 2020. "Neofalantismo y el sujeto neohablante". In L. Martín Rojo; J. Pujolar Cos (coords.). Claves para entender el multilingüismo contemporáneo. Zaragoza: Editorial UOC y Universidad de Zaragoza, 229-265.

Soziolinguistika Klusterra. 2017. Hizkuntzen erabileraren VII. Kale-neurketa. Andoain: Soziolinguistika Klusterra.

Urla, Jaqueline; Amorrortu, Estíbaliz; Ortega, Ane; Goirigolzarri, Jone. 2017. "Basque standardization and the new speaker: Political praxis and the shifting dynamics of authority and value". In P. Lane, J. Costa & H. De Korne (arg.) Standardizing Minority Languages. New York: Routledge, 24-46.

11.ERANSKINAK: ELKARRIZKETEN GIDOIAK ETA ARGAZKIAK

Elkarrizketa-gidoia: gazteak

Gazteen (hizkuntz) ideologiak

Kasu honetan hizkuntz ideologiaz hitzegitea litzateke helburua. Horrekin batera hizkuntz politika eta hizkuntz plangintza ere izango lirateke hizpide. Dena gazteen errealitatetik, gazteen kulturatik, gazteen kezka eta interesetik.

Bilatzen duguna da diskurtsoa, ideologia, pentsatzen dutena, dituzten iritziak.

0. Sarrera. (15-20 minutu)

- Gazte bakoitzaren aurkezpena: izena, adina, momentuko egoera (ikasten, lanean...), bakoitzak gehitu nahi duena (afizioak, gustuak, herriaren inguruko iritziak...)
- Aurkezpen pertsonala egin dugu, eta hiztun gisa, nola aurkeztuko genuke gure burua hiztun gisa? Eta zehazki, euskal hiztun gisa, nolako euskal hiztunak gara? (bakoitzaren "istorioa", esperientzia, momentu honetan euskararekiko duen sentimendua, lotura...).
- Egunerokotasunean, bakoitzak bere testuingurua, bere egin beharretan, non ikusten du euskara? Non, zein egoeratan du kontaktua euskararekin? Zein egoeratan ez?
- Harremanen munduan zein papera du euskarak?
- Eta mundu digitalean?

1.- Euskararen gaineko diagnostiko orokorra (gazteen aurrean nabarmendu behar dugu euren iritzia eta gogoeta interesatzen zaigula, euren inpresioak. Ez zaigu interesatzen ikustea edo neurtzea zenbait dakiten). **(30 minutu)**

- Zein da orohar euskararen egoerari buruz egiten dugun diagnostikoa/gogoeta? (gerta daiteke zaila egitea horrelako galdera orokor bat erantzutea, horrela bada, lagundu daiteke diagnostiko hori zatikatzea. Horrela galdetu dezakezu (1) euskararen ezagupenaren inguruan, (2) erabilerari buruz eta (3) euskararen gaineko jarrerei buruz).
- Ezagutzen dugu euskararen inguruan egin dena edo egiten ari dena (beti ere euskara bultzatzeko, euskararen ezagutza, erabilera...)? Zein ekimen ezagutzen ditugu? Zein iritzi dugu ekimen horien inguruan? Zer gustatzen zaigu? Zer ez zaigu hainbeste gustatzen? (galdera hau modu ezberdinetan planteatu daiteke, "gustatu" beharren beste hitz bat erabiliz, adibidez, zer baloratzen dugu modu positiboan? Zer ez da hain positiboa?)
- Ezagutzen ditugu euskararen garapenean ari diren eragileak? (egokia ikusten badugu ahal dugu eskatu ezagutzen dituzten eragileak zerrendatzeko eta gero zerrenda horren gainean lana egin: nolako eragile nagusitzen dira? zein eragiten ari dira gehien euskararen egoeran?)

- Badakigu zer den hizkuntz politika? Eta hizkuntz plangintza? Nola azalduko genituzke bi kontzeptu hauek?
- Eta euskalgintza? Badakigu zer den euskalgintza? Zertan aritzen den? Zeintzuk dira bere helburuak, lan esparruak...?
- Badugu non/zeinekin hitzegin euskararen egoeraren inguruko galderak, kezka...?

2.- Euskararen egoera orokorra herrian. (30 minutu)

- Euskara dela eta nola definituko genuke gure herria? Zein egoeran dago euskara?
- Herrian kokatuta, zein nolako ideiak, diskurtsoak, jarrerak... nagusitzen dira -zuen ustez- euskararekin lotuta?
- Herri mailan, zein esparruetan du euskarak presentzia gehien? Eta gutxien?
- Euskararekin lotuta, zein eragile daude herrian? Zein nolako ekimenak bultzatzen dira nagusiki? Nola baloratzen ditugu ekimen horiek?
- Herrian euskalgintza bizirik dagoela esango genuke?
- Jakingo genuke esaten zein den herrian dagoen hizkuntz politika? Esango genuke herriak baduela hizkuntz plangintza bat (hau da, badago herrian plan bat euskara bultzatzeko?)
- Azkenengo urteotan aldaketaren bat somatu dugu -euskararekin lotuta-? Zein joera ikusten ditugu? Etorkizuna, nola irudikatzen dugu? Zerk kezkatzen gaitu gehien? Zerk ematen digu itxaropena?
- Herriaren gainean egin dugun (hizkuntz) diagnostiko honetan, non kokatzen dugu gure burua? Zein izan da orain arte gure jarrera? Gure partehartzea? Gure iritzia?

3.- Gazteak eta euskara, orohar zein herrian (30 minutu)

- Gazteak garen heinean eta gure belaunaldian kokatuta..., nola ikusten dugu gazteen papera euskararen munduan: zer egiten dugu gazteok? Zein da gure papera? Nola sentitzen gara paper horrekin? Zer egin beharko genuke? (edo zer nahiko genuke egin?).
- Zein jarrera ikusten dugu gure inguruan? (gure adinkideen artean...)
- Zein diskurtso entzuten ditugu gure inguruan? (gure adinkideen artean...)
- Mugitzen garen eremuetan (feminismoa, gazteleku, bestelako militantzia edota partehartze...) euskara kezka da? (adibidez, berdintasuna, generoa edo feminismoa den bezala) Gure ustez izan beharko luke?
- Hizkuntz politikan edota hizkuntz plangintzaren esparruan gazteek parte hartu beharko lukete? Zentzua izango luke horrek? Eta, gazteen aldetik, interesa, kezka edo ardura egon daitekeela uste duzue?
- Herriko gazteak badute lotura euskalgintzarekin? (bai edo ez: arrazoiak).

Adituentzat elkarrizketa-gidoia: guraso gazteak

Elkarrizketatuak gure ikerketaren berri izango duela pentsa dezakegun arren, elkarrizketa hasi aurretik, gogorarazi behar zaio zertan ari garen. Modu orokorrean bada ere, ikerketaren gaia eta helburuak aipatu behar dira. Baita noren izenean ari garen lanean ere (Soziolinguistika Klusterraren enkargua dela eta UPV/EHuko ikerlariak garela).

BETI, baimena eskatu behar da elkarrizketa grabatu ahal izateko. HAU GRABATU BEHAR DA. Hau da, grabagailua martxan jartzean entzun behar da gure ahotsa elkarrizketa grabatzeko baimena eskatzen eta elkarrizketatuak baimena ematen.

1. Sarrera (10 minutu)

- Elkarrizketatuen aurkezpen orokorra: beren kokapena herrian (bertakoa den, kanpotik etorri den, edo lanera datorren...)
- Zer dela eta harremana du herriko guraso-gazteekin, noiztik...

2. Guraso gazteei buruz hasi aurretik, herriari buruz bi hitz... (15 minutu)

- Herriaren deskribapen orokorra: ezaugarriak, elementu bereizgarriak (kanpotik etorritako norbait..., zertan erreparatuko luke edo zer egingo litzaiokie deigarriena?)
- Herriko dinamika: zerk eragiten du mugimendua(k), bizimodua...?
- Zein esparruk, zein unek biltzen du jendea? (jaiak, kirola, politika, kultura...???)
- Biltzeko gune/une horietan, zein biltzen dira normalean? (helduak, gazteak, adindunak, umeak; gizonezkoak, emakumezkoak...)
- Kanean, ekimen sozialetan... zein daude agerian (ikusgai) eta zein ez, zer jende mota botatzen duzu faltan herrian (zein geratzen diren ikusezin)?
- Herria ezagutzen duzunetik... aldaketa bereziren bat nabaritu duzu edo baten bat nabarmenduko zenuke?

3. Herriko guraso gazteak (20-30 minutu)

- Nolakoak dira ezagutzen dituzun guraso gazteak? Ezaugarriak. Zer familia motatakoak dira?
- Zer gustatzen zaie? Zer egiten dute normalean?
- Non eta zertan ibiltzen dira? Astean zehar eta asteburuetan.
- Nola elkartzten edo taldekatzen dira? (zeren arabera: adina, ikastetxearen arabera, zaletasunen arabera...) Eta GENEROAREN ARABERA? Amak batetik eta aitak bestetik?
- Ezagutzen dituzu haien kezkak, nahiak, estualdiak...?
- Sozialki... mugitzen dira? Zertarako? Zeren inguruan? Adibidez, parte hartzen dute herriko mobilizazioetan?
 - Zerk du indarra gurasoak erakartzeko?
 - Herriko gurasoen artean, ba al dago liderrik (norbanako edo taldeka)?
 - Badago herrian gurasoentzat erreferentea izan daitekeen norbait (politikari, kultur eragile, artista, musikaria, kirolaria...)?

- Guraso tipologiak egin daitezke? Zeintzuk lirateke?
- Herriko gurasoak aurkitzeko nora joan beharko genuke? Non biltzen dira?
- Zein dira herriko gurasoen "ohiturak"?
- **Guraso elkarteak:** asko biltzen zarete? dinamika nolakoa da? Zein motatako ekimenak antolatzen dira? Guraso "guztiek" du harremana?

4. Herria, euskara, gazteak..., zer nolako ekuazioa? (20-30 minutu)

Herria eta euskara: kokapen orokorra:

- Euskararen ikuspuntutik, nola definituko zenuke herria?
- Ezagutzen duzu euskarak herrian izan duen historia edo ibilbidea? (euskara Francoren garaian, ikastolaren sorrera, euskaren inguruko taldeak...)
- Non, zertan, zeinen artean topatzen dugu euskara bizien?
- Zerekin lotzen da euskara herrian? Zer praktikarekin? Zein GUNEekin? Zein UNEekin? Zein talderekin? Zein izen-abizen edo pertsonarekin? Badago herrian hizkuntza ondare bat, ezaguna dena?
- Euskara herriko bizitzaren parte da? Herriko kaleetan dago? Herriko paisaiaren parte dela esango zenuke?
- AURRETIK EZ BADA AIPATU EUSKARALDIAREN GAIA, orain aipatu: Euskaraldia, nola bizi izan da herrian? Nor mugitu da? Zer "mugitu" du Euskaraldiak?
- AURRETIK EZ BADA AIPATU BUZTIGINTZA MUSEOAREN GAIA: Ezagutzen du? Zein irudi du? Ezagutzen du arduraduna? bere ustez herritarrek zein lotura dute museoarekin?
- Gure planteamendua orokorrean komentatu: zeinek parte hartu dezaketen? la-guntza prest legoke?

Herriko gurasoak eta euskara

- Herriaren eta euskararen arteko harreman horretan (goian aipatu dena): non daude gurasoak?
- Gurasoen artean ikusi edo hautemandako jarrerak, diskurtsoak, praktikak...
- Euskara eta guraso gazteak: zer tipologia bereiz daitezke? (bakoitzaren ezau-garriak)
- Euskararen erabileraren (edo EZ erabileraren) atzean hautematen diren fakto-reak (elkarrizketatuaren arabera): Familia? Eskola? Aisialdia? Lagunak? Maila ekonomikoa? Ideologia? Generoa?
- Euskararekin lotutako ekimen positiboak (eragin positiboa eduki dutenak gaz-teen artean): izan direnak, daudenak

Guraso gazteen talde-elkarrizketaren gidioa

Talde-elkarrizketaren helburua hizkuntza ideologiaz eta hizkuntza-praktikei buruz hitz egitea da. Diskurtsoa, ideologia, pentsatzen dutena, dituzten iritziak, ohiturak... jakin nahi ditugu. Horrekin batera, hizkuntza politika eta hizkuntza plangintza ere izango dira hizpide. Dena guraso gazteen errealitatetik, haur txikiak dituzten gurasoen kezka eta interesetatik.

0.- Sarrera.

- Guraso bakoitzaren aurkezpena: izena, adina, lanean ari den ala ez, bakoitzak gehitu nahi duena (zaletasunak, gustuak, herriaren inguruko iritziak...)
- Aurkezpen pertsonala egin dugu, eta hiztun gisa, nola aurkeztuko genuke geure burua hiztun gisa? Eta, zehazki, euskal hiztun gisa, nolako euskal hiztun gara? (bakoitzaren "istorioa", esperientzia, gaur egungo euskararekiko sentimendua, lotura...).
- Egunerokotasunean, bakoitzak bere testuingurua, bere eginbeharretan, non ikusten du euskara? Non, zer egoeratan du harremana euskararekin? Zer egoeratan ez?
- Eta zehazki, euren harremanen munduan zer rol du euskarak? (bereizi aurrez aurreko "harremanak" eta mundu digitalean dituztenak)

1.- Euskararen gaineko diagnostiko orokorra (nabarmendu behar dugu euren iritzia eta gogoeta interesatzen zaigula, euren inpresioak. Ez zaigu interesatzen ikustea edo neurtzea zenbat dakiten).

- Zein da oro har (Euskal Herriaz hitz egiten) euskararen egoerari buruz egiten dugun diagnostikoa/gogoeta? (gerta daiteke zaila egitea horrelako galdera orokor bati erantzutea; horrela bada, lagun daiteke diagnostiko hori zatikatzen. Beraz, galde dezakezu (1) euskararen ezagutzaren inguruan, (2) erabilerari buruz eta (3) euskararen gaineko jarrerari buruz).
- Ezagutzen dugu (kasu honetan ere, orokorrean, Euskal Herri mailan) euskararen inguruan egin dena edo egiten ari dena (betiere euskara bultzatzeko, euskararen ezagutza, erabilera...)? Zer ekimen ezagutzen ditugu? Zer iritzi dugu ekimen horien inguruan? Zer gustatzen zaigu? Zer ez zaigu hainbeste gustatzen? (galdera hau hainbat modutan planteatu daiteke, "gustatu" beharrean beste hitz bat erabiliz; adibidez, zer baloratzen dugu modu positiboan? Zer ez da hain positiboa?)
- OHARRA: interesgarria litzateke ikustea noraino gertatu den "transmisioa" euskalegintzaren inguruan, edo euskararen gizarte mugimenduen inguruan, ikastolen mugimenduan... Agian ez dugu galdera zehatz bat egin behar, baina bai buruan eduki ideia hau.
- Ezagutzen ditugu euskararen garapenean ari diren eragileak (orokorrean Euskal Herrian)? (egokia ikusten badugu, eska dezakegu ezagutzen dituzten eragileak zerrendatzeko, eta gero zerrenda horren gainean lan egingo dugu: Zer eragile dira nagusi? Nor ari da eragiten gehien euskararen egoeran?)

- Zerekin lotzen ditugu kontzeptu hauek? Hizkuntza politika, hizkuntza plangintza. Nola azalduko genituzke kontzeptu hauek?
- Eta euskalgintza? Badakigu zer den euskalgintza? Zertan aritzen den? Zeintzuk dira haren helburuak, lan esparruak...?
- Badugu non/norekin hitz egin euskararen egoerari buruz, galderak, kezak...? Badugu gaiaz gogoeta egiteko ohitura, aukera, gun e aproposik?

2.- Euskararen egoera orokorra (gure) herrian.

Euskarari dagokionez, zer egoeratan dago gure herria?

- Herri mailan, zein esparrutan du euskarak presentzia handiena? Eta txikiena?
- Euskararekin lotuta, zer eragile daude herrian? Zer nolako ekimenak bultzatzen dira nagusiki? Nola baloratzen ditugu ekimen horiek?
- Herrian euskalgintza bizirik dagoela esango genuke?
- Jakingo genuke esaten zein den herriko hizkuntza politika? Esango genuke herriak baduela hizkuntza plangintzarik (hau da, badago herrian plan bat euskara bultzatzeko?)
- Euskararekin lotuta, zer eragile daude herrian? Zer nolako ekimenak bultzatzen dira nagusiki? Nola baloratzen ditugu ekimen horiek?
- Nolakoa da gure parte hartzea?
- Herrian kokatuta, zer nolako ideiak, diskurtsoak, jarrerak... nagusitzen dira -zuen ustez- euskararekin lotuta?
- Eta zein izan da orain arteko gure jarrera?
- Azken urteotan aldaketaren bat sumatu dugu, euskararekin lotuta? Zer joera ikusten ditugu? Etorkizuna, nola irudikatzen dugu? Zerk kezkatzen gaitu gehien? Zerk ematen digu itxaropena?
- Herriaren gainean egin dugun (hizkuntz) diagnostiko hau dela eta, nola definituko genuke gure herria?
- Eta non kokatzen dugu geure burua?

3.- Guraso gazteak eta euskara, oro har zein herrian

- Gurasoak garen heinean..., nola ikusten dugu gurasoen eginkizuna euskararen munduan? Nola sentitzen gara eginkizun horrekin? Zer egin beharko genuke? (edo zer nahiko genuke egin?).
- Zer jarrera ikusten dugu gure inguruan? (beste gurasoen artean...): pasiboa, aktiboa, zertan aktiboagoak? Zertan pasiboagoak?
- Zer diskurtso entzuten ditugu inguruan? (beste guraso gazteen artean...)

- Badago guraso gazteen artean gatazkarik? Hizkuntzak (euskarak) eraginik badu gurasoen arteko tirabiretan edo gatazketan?
- Hizkuntza gatazka edo tentsio gune bilakatzen denean, nola bideratzen edo kudeatzen da tentsio hori?
- Hizkuntza politikan edo hizkuntza plangintzaren esparruan, guraso gazteek parte hartu beharko lukete? Zentzua izango luke horrek? Eta, gurasoen aldetik, interesa, kezka edo ardura egon daitekeela uste duzue?
- Zuen ustez, guraso gazteen artean badago euskararen alde militatzeko gogorik? Euskara bada militatzeko gune bat? Zer nolako militantzia litzateke?
- Herriko guraso gazteek badute lotura euskalgintzarekin? Nolakoa da lotura hori?
- Euskaraldia dela eta, nola bizi izan zenuten? Horren inguruan, gogoetaren bat partekatu nahi duzue?

4.- hizkuntza-praktikak

- Ibiltzen garen (*ibiltzen bagara*) esparruetan (guraso elkarte, haurren aisialdia –parke giroa...-, dantza-taldea, feminismoa, bestelako militantzia edo parte hartzeak...), euskara kezka da?
 - Badago ohitura bereziren bat? Erritu, ospakizun... bereziren bat?
 - Zenbat taldekide daude? Nolakoak dira? (*talde zehatz bati buruz*)
 - Nola definituko zenituzke kideen arteko harremanak?
 - Zer pisu du euskarak talde harremanetan? Eta talde-praktiketan (taldeak egiten duen horretan, egiten diren ekintzetan, antolatzen diren planetan...)?
 - Euskarari dagokionez (ezagutza, erabilera...), nola definituko zenituzkete taldekideak? Zer hiztun mota daudela esango zenukete? Zerk sortzen ditu ezberdintasunak?
 - Zein da oro har erabilera? Zerk (egoerak, uneak, pertsonak...) laguntzen du euskararen erabileran? Zerk oztopatzen du?
 - Esango zenukete badagoela nolabaiteko konpromisoa euskararekin? Praktika mailan edo diskurtsoan geratzen da?
 - Euskararen inguruan hitz egiten da gurasoen artean? Haurren heziketari buruzko elkarrizketetan? Horrela bada, zer jarrera/iritzi plazaratzen dira?
 - Euskara dela eta, aldatuko zenukete zerbait egungo (hizkuntz) egoeran?
 - Euskarari dagokionez, zer konparazio egin daiteke taldearen egoeraren eta herriko gurasoen egoeraren artean? Askok aldatzen da inguruko herriekin konparatuta? Zertan? Zergatik?
5. – **AMAIERA EMAN**: Nola sentitu zara dinamika honetan zehar? Nola baloratzen duzu horrelako dinamika

LEGUTIO: ARGAZKIEN BILDUMA

1. IRUDIA: Herriko plaza eta Esneitza taberna



2. IRUDIA: Dovela taberna



3. IRUDIA: Udaletxea



4. IRUDIAK: Kartelak eta pintadak





5. IRUDIA: FRONTOIA



6. IRUDIAK: Euskaraldiko banderolak



7. IRUDIA: Bankuak herrigunetik aparte



8. IRUDIA: Boot and boys



9. IRUDIA: San Roke parkea



10. IRUDIA: Kiroldegia



11. IRUDIA: Haur eskolako sarrera



12. IRUDIA: Patinaje kirol kluba



13. IRUDIAK: Hotel okupatua



14. IRUDIA: Amaitu gabeko igerilekua



15. IRUDIA: Etxe elkarri atxikiak



16. IRUDIAK: Herriko tabernak



Urkiola taberna



BUZTIN-LANTEGIA



